

EUSKERA ETA BERE

DIDAKTIKA

Maidier BERRIO GOÑI

**ESKOLA LIBURUTEGIA,
LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN
IRAKURZALETASUNA
BULTZATZEKO BALIABIDEA**

TFG/GBL 2013

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación Primaria /
*Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua***

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**ESKOLA LIBURUTEGIA,
LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN
IRAKURZALETASUNA BULTZATZEKO
BALIABIDEA**

Maidier BERRIO GOÑI

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Maider BERRIO GOÑI

Izenburua / Título

Eskola liburutegia, Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko baliabidea/

La biblioteca escolar, recurso para la animación a la lectura del alumnado de Educación Primaria

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Paula KASARES CORRALES

Saila / Departamento

Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika/ Filología y Didáctica de la Lengua

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2012/2013

Seihilekoa / Semestre

Udaberrikoa / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua aldatu zuen 2010eko uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuak bere III. kapituluaren hiru artikuluan ezartzen du Gradu ikasketa ofizialei buruz: "... ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu".

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, *Practicum* daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakutsi dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta *Practicum*ean, horiek eskatzen baitira Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluaz baliatu naiz, bereziki eskolako liburutegiak curriculumean duen lekua aztertuz eta ikasleen garapen psikoebolutiboa kontuan hartuz jarduerak prestatzerakoan. Gaur egun, ikasleen irakurzaletasunaren egoera azaltzen da batez ere.

Didaktika eta diziplinako modula proiektu osoan zehar garatzen da. Izan ere, hizkuntza eta literaturaren arloari dagokio, hain zuzen ere irakurzaletasuna nola bultzatu daitekeen. Honetarako sekuentzia didaktiko bat egin izan da.

Halaber, *Practicum* moduluak bidea eman du proiektua aurrera eramateko eta ikastetxe batean aplikatzea ahalbidetu du. Proiektua ikasgela batean liburutegia sortzea izan da dokumentu honetan xeheki azalduko dudanez.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira azken atalak, “Resultados y su discusión” eta “Conclusiones¹”, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

¹ Lan honek gaztelaniaz dituen ataletan *alumno/a*, *niño/a*, *profesor/a* eta halakoak idatziko dira oro har. Dena dela, kontrakoa adierazi ezean, *alumnos*, *niños* edo *profesores* agertzen delarik plural biltzailea dela ulertu beharko da.

Laburpena

Proiektu honek eskolako liburutegia Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko nola balia daitekeen azaltzen du. Hezkuntzari buruzko lege-arauak kontuan hartzen dira, gaur egun irakurzaletasunak eta irakurtzeak bereziko aipamena baitute. Curriculumean nahiz ebaluazio diagnostikoetan irakurtzeari eta irakurzaletasunari garrantzi handia aitortzen zaie. Izan ere, irakurzaletasuna irakurmena garatzeko funtsezkoa da.

Bestalde, eskolako liburutegiak eta ikasgelakoak izan behar duten erabilera azaltzen da, batez ere, irakurzaletasuna bultzatzeko baliabide moduan. Honetarako liburutegiak ongi hornituta egoteaz gain ongi kudeatuta egon behar du. Gainera eskolako liburutegian ikaskuntza komunitate osoak parte hartu behar du, irakurzaletasuna bultzatzeko denok lan egitea ezinbestekoa baita. Honekin batera ikasleek gogoz irakur dezaten lortzeko egin daitezkeen zenbait jarduera agertzen dira, gehienak liburutegian oinarrituta. Besteak beste, irakurketa eta idazketa prozesuak lotzen dituzten jardueraz hitz egiten da, idazteko irakurri egin behar delako eta irakurtzeko idatzi.

Azkenik, ikastetxe batean liburutegiko egoera aztertu da eta ikasgela batean ikasleek liburutegi bat sortu dute. Izan ere, liburutegiaz baliatu eta irakurtzen hasteko lehenengo pausoa liburutegia izatea da.

Hitz gakoak: liburutegia; irakurzaletasuna; irakurriaren ulermena; gogoz irakurtzea; irakurlea.

Resumen

Este proyecto trata sobre cómo se puede utilizar la biblioteca escolar para animar a la lectura a los alumnos de primaria. Recoge algunos aspectos normativos que tratan de la lectura y la animación a la lectura. De hecho, en el currículum y en las evaluaciones diagnósticas se subraya la importancia que hoy en día tienen estos aspectos, ya que para el desarrollo de la competencia lectora el gusto por la lectura es fundamental.

Por otro lado, se explica el uso que debe de tener la biblioteca en general y en particular en el aula, sobre todo como herramienta a la animación lectora. Para esto

debe disponer de un buen fondo y una buena gestión. Además toda la comunidad educativa debe participar en la biblioteca escolar; para animar a la lectura es imprescindible el trabajo de todos. Junto a esto, se ofrecen diferentes actividades o estrategias encaminadas a la animación de la lectura, la mayoría surgidas desde la biblioteca. Entre otras, las que vinculan la lectura y la escritura, puesto que para escribir es necesario leer y para leer escribir.

Por último, a nivel práctico se ha analizado la situación de la biblioteca en un centro escolar y el alumnado de una clase ha creado su propia biblioteca de aula. Para empezar a leer desde la biblioteca el primer paso es disponer de una.

Palabras clave: biblioteca; animación; comprensión lectora; placer por la lectura; lector.

Abstract

This project is about how you can use the school library to encourage reading to elementary students. Includes formal aspects because, nowadays reading animation and reading have a special meaning in learning process. You must read to develop reading skills. Therefore, the importance of reading is stressed in the curriculum and diagnostic evaluations.

On the other hand, the text explains the use must have the library, especially as a tool for reading entertainment. For this the library should have a good book collection and good management. Besides the educational community must participate in the school library, to encourage reading is essential to everyone's work. In addition, appear different activities or strategies for the animation of reading, most starting from the library. For example, that what links reading and writing. In fact, writing requires reading and reading requires writing.

Finally, on a practical level I have analyzed the situation in a school library and students of a class has created their own classroom library. To start reading from the library the first step is to have one.

Keywords: library; animation; reading skills; reading pleasure; reader.

Aurkibidea

	<u>Or.</u>
Sarrera	1
1. Aurrekariak, helburuak eta auziak	1
1.1 Jakin beharreko kontzeptuak	2
1.2 Lege-arau alderdiak	4
1.2.1 Legedia	4
1.2.2 Liburutegia LHko curriculumean	5
1.2.3 Eskolako Liburutegia eta Hobetze planak	9
2. Marko teorikoa	10
2.1 Eskolako liburutegia erabiliz	12
2.2 Irakurtzeko irakurri	14
2.3 Liburuak	16
2.4 Literaturarekin konprometitutako eskola	17
2.5 Idazteko irakurri eta irakurtzeko idatzi	18
2.6 Irakurketa	20
2.7 Irakurmenaren ulermena	23
3. Aplikazio didaktikoa	25
3.1 Eskolako liburutegia	26
3.2 Liburutegiaren lan-taldea	27
3.3 Ikasgelako liburutegia	27
3.4 Praktiakan jarriz	29
3.4.1 Garapen psikoebolutiboa	29
3.4.2 Jarduerak	31
3.4.3 Irakurketa txokoa	39
4. Emaitzak eta eztabaida	40
Ondorioak	53
Erreferentziak	57
Eranskinak	59
Eranskina I	59
Eranskina II	60
Eranskina III	61
Eranskina IV	62

1. AURREKARIAK, HELBURUAK ETA AUZIAK

“Eskola Liburutegia Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko baliabidea” izenburua duen proiektu hau egitea erabaki dut hainbat arrazoiengatik.

Lehenik eta behin, arrazoi pertsonalengatik. Izan ere, betidanik liburutegiek eta liburuen munduak interes berezia sorrarazi didate. Baina beti kezka batekin; ikasleek gustuko dutelako edo irakurri behar dutelako irakurtzen dute. Eskolan astero liburutegira joaten ginen astean zehar irakurri behar genuen liburu edo komiki bat hartzera. Liburu asko dira irakurri nituenak eta gehiengoak gustukoak izan nituen baina eta nire ikaskideak? Batzuk ez ziren oso ikasle trebeak eta agian hauek irakurri gabe liburua itzultzen zutela pentsatzera ohituta gaude; eta gainontzekoak? Gaur, nire lagunekin (unibertsitateko ikasleak direnekin) hizketan eta hango garaiak gogoratu galdera hauei erantzutea lortu dut. Ikasleen gehiengoak ez zuen astero eskolako liburutegitik hartzen zituen liburuak irakurtzen. Bestalde, irakurtzen bazuten, zergatik egiten zuten? Gurasoek behartuta edo irakasleek esaten zutelako, irakurtzen trebatzeko, zenbaitetan azterketaren bat egingo zutelako etab. Inoiz ez gustukoa zutelako edo irakurtzeaz gozatzeko. Orain eskola batean praktikan nago eta ikasleek astero ikasgelako liburutegitik liburuak hartzen dituzte etxean irakurtzeko eta galdera berberak egiten dizkiot buruari: irakurriko dituzte? Eta irakurtzen badute, zergatik egingo dute? Ziurrenik erantzuna goiko lerroetan jarritakoaren berdina izango da. Egongo dira irakurtzea gustuko zaien ikasleak baina gehienak behartuta egingo dute eta beste askok ez irakurtzen saiatuko dira. Baina hain garrantzitsua da txikitatik irakurzalea izatea? Edo txikitatik irakurtzea gustatzen zaionari soilik bizitza osoan zehar gustatuko zaio? Hau bere bizitza osoan irakurle amorratua izango da? Galdera guzti hauei erantzuna aurkitzen saiatuko naiz proiektuan zehar.

Bigarrenik, eskoletan irakurri eta idatzi gutxi egiten delako. Honekin ez da esan nahi idazmena edo irakurmena lantzen ez denik. Ariketak egiten dira eta ikasleek idazten eta irakurtzen ikasten dute baina ez benetan idazten eta irakurtzen. Hau da, hitzak erreproduzitzen dituzte baina prozesu hau egitean lortzen den esanahia ulertu gabe.

Hizkuntza hezkuntza prozesu osoan erabiltzen da, beraz, zergatik ez ahalik eta gehien landu? Ez hizkuntza “tokatzen” denean bakarrik? Irakurmenaren ulermena ahal den guztietan landu behar da, ez soilik ulermen ariketak egiten direnean. Adibidez matematikako ariketa batean bakoitiak gorritz borobildu eta bikoitiak urdinez azpimarratzeko eskatzen badu ikasleek hori egin behar dute ezin zaie biak borobiltzen utzi behar. Irakurri dutena eta ulertu dutena egin beharko dute; eta horri dagokion garrantzia eman.

Azkenik, *practicum* aldian ikasgelako liburutegia sortzeko aukera izan dudalako. Hortaz, proiektu txiki bat hasi da alde batetik, ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko ezinbestekoa izango dena. Eta bestetik, ikasleen liburuen gaineko interesa eta ezagutza pizteko oso baliagarria izango dena. Gainera, honen bidez era hurbilago batetik aurretik planteatu diren galderei erantzutea posible izango da. Dena den, irakurzaletasuna prozesu luzeago bat dela ulertu behar da eta ikasgelan sortuko den liburutegia prozesu honen hasieraren zati bat besterik ez. Horregatik nahiz eta ikasleen irakurzaletzea berez ikusiko ez den, garrantzitsua da liburutegiaren alde formaletatik hastea. Hau da, liburutegia sortzea eta eraikitzea ezinbesteko baliabidea da ikasleek liburuak irakurri ahal izateko. Izan ere, ikasle guztiek liburuak hurbilagoak direla ikusi eta sentituko dute eta hauen kanpoko aldearekin lan eginez, barruan dagoenaren aurrean interesatuko dira eta galdetuko dute. Horrela gustura eta haiek erabaki dutelako irakurtzen badute irakurritakoaren ulermena ere hobetuko da eta aurrerago landuko diren testuak gogo handiagoekin hartuko dituzte.

1.1 Jakin beharreko kontzeptuak

Dena den, badira kezkatzen edo jakin-mina sortzen didaten beste galdera kontzeptualagoak ere. Zein da irakurzaletasuna bultzatzearen benetako esanahia? Zer ulertu behar da irakurketaren gozamenaz hitz egitean? Zein izan behar da irakurzaletasuna bultzatzearen zentzua? Galdera hauek erantzutea ezinbestekoa da proiektua ulertu ahal izateko. Izan ere, izenburutik hasita agertzen dira irakurzaletasuna bultzatzea edo irakurtzera animatzea hitzak. Hauek zer esan nahi duten jakin behar da gero irakurtzea bultzatzearen ekintza egin ahal izateko.

Animazioaren benetako zentzua ongi ulertzeko kontzeptuaren historia ezagutzea

beharrezkoa da, bai eta sortu zen garaiko nahi pedagogiko eta sozialak ere. Animazio hitza progresiboki jarduera sozialei, haien artean irakurketari, uztartzen hasi zen. Esamolde berria arrakasta handiarekin ezarri zen liburutegietan, gero ikasgeletara migratuz. Beraz, gaur egun eskolako liburutegitik irakurketa bultzatzea edo animatzea ezinbestekoa da eta ikasgelako liburutegia sortzea aurrera eramateko bide izan daiteke.

Bestalde, gozamenaren ideia irakurketari estu-estuki loturik doakio. Inork ere ez du zalantzan jartzen irakurtzearen esperientziak atsegina eta desiragarria izan behar duenik. Baina gauza bat hitzaldiak edo diskurtsoak dira eta beste bat, oso ezberdina dena, egunerokotasuna da. Errealitateak esaten denaren eta egiten denaren arteko kontraesanak azalerazten ditu. Ez da ez-ohikoa irakurmenaren gozamena defendatzea behartutako ariketak egiten ari diren bitartean. Hau da, eskoletan askotan esan edo egiten dira irakurketa lantzeko ariketak baina hauekin benetan lortzen al da ikasleek gustura irakurtzea? Gizakiaren garunaren funtzionamenduaren gero eta ezagutza handiagoa izateak ahalbidetzen du jakitea, gozamenak (bizitza sostengarri egiten duenak) egiten den edozein jardueratan duela jatorria, irakurketa barne. Beraz, irakurmena atsegina izateko hau inguratzen dituzten jarduerak atseginak izan behar dute. Horrela lortuko baitira emaitzarik onenak.

Gainera, irakurketa baten animazioa testu baten ulermena ahalik eta hoberen egitera eramaten duen jardueratariko bat da. Irakurleen liburu batekiko erantzuna irakurritakoaren iritzia izateaz gain, ezagutzari bidea ematea da ere. Elkarrizketa eta eztabaida, idazketa eta birsortze artistikoa, liburu batean kokatutako hitzekiko konpromisoa da. Izan ere horrela da esanahi pertsonalak eraikitze bidea, irakurmenak norbanakoarengan sortu dituen efektuak bilatuz eta aurkituz alegia. Testu bat irakurtzearen esperientzia konpartitzeak edo irakurritakoarekin dialogo moduan beste testu bat idazteak irakurketa zabaldu eta zehazten du. Azken finean, irakurtzea zer den ulertzeko balio du; eta hau ikasleek ezagutzea lortu behar da eskoletan. Hortaz, eskolako liburutegitik bultzatu beharra dago baina ikaskuntza komunitate guztiak parte hartuz. Izan ere, beste espazioak dauden arren, irakurleen zortea etxean (gurasoekin), ikasgeletan (irakasleekin) eta liburutegietan erabakitzen da (Mata, 2008).

1.2 Lege-arau alderdiak

Beraz, honako proiektu honek Lehen Hezkuntzako ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko Eskolako Liburutegia nola baliatu daitekeen azalduko du. Izan ere, alde batetik indarrean dauden arauetatik Eskolako Liburutegia aipatzen dutenak daude. Hauen artean Hezkuntza Sistema arautzen duen LOE (*Ley Orgánica de Educación* deiturikoa) legearen barnean dagoen *Curriculumean* liburutegiak duen lekua aipatzen duena. Eta beste aldetik, PISA (*Program for International Student Assessment* delakoa) frogan emaitzak hobetzarren Nafarroako Gobernuak hainbat plan proposatu ditu oinarrizko gaitasunak eta bereziki irakurketan inplikaturakoak hobetzeko proiektuak planteatzen dituztenak.

Hurrengo ataltxoetan aipatu arau eta planak garatuko ditut.

1.2.1 Legedia

Gaur egun Hezkuntza Sistemaren barnean Eskolako Liburutegia arautzen duten zenbait lege daude.

Hasteko, 1537/2003 Errege Dekretuak², erregimen orokorreko eskola irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek izan behar dituzten baldintza gutxienekoak ezartzen dituenak, eskoletan liburutegia nahitaez egon beharra ezartzen du. Arau horretan, liburutegia eskola *curriculumaren* helburuak lortzeko tresnatzat ikusten da. Liburutegiak beharrezko liburu funtsa izanen du bai eta ekipamendu informatikoa ere ikasleengan irakurzaletasuna sustatzeko. Liburutegiak behar duen gutxienezko azalera hezkuntza mailaren arabera izango da.

Aipatu Errege Dekretu hori garatzeko, Nafarroako Gobernuak 88/2006 Foru Agindua³ onartu zuen eta horren bidez, arautu Haur eta Lehen Hezkuntzako Bigarren zikloko ikastetxeetan ezaugarri sozio-demografiko edo berariazko arreta behar duten ikasleak daudenean, zer baldintza behar diren.

² Abenduaren 5ekoa, *Boletín Oficial del Estado* (BOE hemendik aurrera), 2003ko abenduaren 10eko alea, 295 zk.

³ Uztailaren 18koa, Hezkuntza kontseilariarena, abenduaren 5eko 1537/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria garatzen duena.

Nafarroako Liburutegien sistema arautzen duen 32/2002 Foru Legearen⁴ 19. artikulua 2. puntuan eskola liburutegiak aipatzen dira. Bertan, eskolako liburutegia honela definitzen da: "... baliabide zentro oinarrikoa, Hezkuntza eta Curriculum proiektuetan erabat integratua, eta informazio zerbitzu eragilea, ikasleen ikasketarako, irakaslanerako eta gizarte ingururako ezinbestekoa". Gainera, honako hau ezartzen du: "... ikastetxe guztietan eskola liburutegi bat egonen dela, irakaslaneko osagai gisa, behar adinako dokumentu, eremu eta jende baliabideez hornitua, Foru legeak ematen dizkion eginkizunak egiteko".

Bestalde, badira lege hauek indartzen dituzten beste dokumentu batzuk, hala nola, 583/2002 Foru Ebazpena⁵, Lehen Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituena, eta 527/2002 Foru Ebazpena⁶, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituena.

Hala ere, ikastetxe publikoen antolamendu eta jardunbiderako jarraibideak ikasturte bakoitzaren hasieran argitaratzen dira. Koordinazio organo gehigarriei buruzko atalean aipatzen da liburutegiko koordinatzaile bat izendatzeko aukera dagoela. Honek gehienez astean bi eskola ordu hartuko ditu kargu horretatik heldu diren lanak egiteko. Eta beti ere idazkariaren menpe egongo da.

1.2.2 Liburutegia LHko curriculumean

Unibertsitateaz beste irakaskuntzetako etapan nafar curriculumak ezartzen dituzten foru dekretuak⁷ itxuratzeko, zenbait hezkuntza printzipio hartu dira aintzat. Haietako batzuek eskola liburutegiak edo informazio iturrien erabilera aipatzen dituzte:

►Irakaskuntza prozesuaren helburua da ikasleak bere buruz ikasteko behar dituen trebetasunak bereganatzea da, informazio iturri tradizionalak eta bai teknologia berriak ere erabiliz.

⁴ Azaroaren 19koa, *Nafarroako Aldizkari Ofiziala* (NAO hemendik aurrera), 2002ko azaroaren 25eko alea, 142 zk.

⁵ Uztailaren 15ekoa, NAO, 2002ko irailaren 11ko alea, 110. zk.

⁶ Ekainaren 27koa, NAO, 2002ko irailaren 11ko alea, 110. zk.

⁷ 24/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculumak ezartzen duena.

▸Irakurriaren ulermena, idazmena eta ahozko adierazpena jorratzea etapa guztietako arlo guztien ikasketaren bidez.

▸Eskolako liburutegia baliabide zentro antolatua da, euskarri mota guztiak erabiltzen dituena, curriculumeko arlo guztien ikasketan lagundu eta ikasleak irakurzaletzeko.

Bestalde, lege testuok badute berritasunik: besteak beste, curriculumeko osagaien artean oinarrizko gaitasunak sartzen dituzte: hainbat trebetasun praktiko, ezagutza, motibazio, balio etiko, jarrera, emozio, eta beste zenbait gizarte osagai, ikasleek bizitza osoan barna beren burua eta beren lanbidea garatzeko ikasi behar dituztenak, eta gainera curriculumeko arlo guztien bitartez ikasi behar direnak. Oinarrizko gaitasunak garatzeko curriculumeko arlo eta ikasgaietan egiten den lanaren osagarri, zenbait antolamendu eta jardunbide neurri hartu behar dira garapen horretarako ezinbestekoak direnak. Ikastetxe eta ikasgelen antolamendu eta jardunbidea, adibidez, ikasleen parte hartzea, barne erregimeneko arauak, zenbait metodologia eta baliabide didaktiko erabiltzea, edo eskolako liburutegia asmatu, antolatu eta jardunaraztea...

Eskola liburutegia baliabide gune antolatua da, edozein euskarri mota erabiliz curriculumaren arlo guztietan ikasketa aktiboa bultzatu eta ikasle guztien arteko hezkuntza berdintasuna ahalbidetzen duena, zein ere gizarte klasekoak diren. Beraz, eskola liburutegiak aipatutako neurri horiek laguntzera dator eta ikasle zein irakasleengan espazio bat eta baliabideak uzten ditu. Hauek edukiari dagokionez (testu literario eta informatiboak) eta formatuari dagokionez (idatzia, ikus-entzunezkoa edo multimedia) izan daitezke eta ikaslek eskolatze etapetako bakoitzean eskuratu behar dituzten funtsezko ikaskuntzak erraztuko ditu.

Foru Dekretu honen ekarpen berezia *Hizkuntzen Tratamendu Integratua* da Lehen Hezkuntzako hizkuntza arloen curriculumean, horrek metodologia bateratua eta irakasle guztien arteko koordinazioa behar izaten baitu. Curriculumaren zati honetan garrantzi berezia du Eskolako liburutegiak. Izan ere, etengabe ageri da Gaztelania eta literatura, Euskara eta literatura, atzerriko hizkuntza (ingeleza), atzerriko bigarren hizkuntza (frantsesa eta alemana) arloetako eduki bloke guztietan.

Eta, azkenik, Nafarroako curriculum hauek hainbat eremu indartzen dituzte: hizkuntza gaitasunak, problemen ebazpena, balioei buruzko hezkuntza, eskola liburutegia

erabiltzea eta informazio eta teknologikoak erabiltzea, eta bai aldi berean kasu egiten ere ikasle bakoitzaren premia, trebetasun, aurreikuspen eta interes pertsonalei, bere gaitasunei ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Eskolako liburutegia, curriculumeko arlo guztien *helburuen* artean ageri da, informazio eta komunikazioaren teknologikoak erabiltzea informazioa eskuratzeko eta ezagutzak beretu eta partekatzeko tresna gisa. Gainera, Euskara eta Literatura arloan “irakurketa gozamenerako, ezagutzarako eta norbera aberasteko iturri gisa erabiltzea, esparru desberdinetan (literarioan, zientifikoan, sozialean...) eta tradizio literarioaren ezagutzara hurbiltzea testu literarioen bitartez” lantzea bermatzen du. Beraz eskolako liburutegian dauden liburuak erabili daitezke edo liburutegian bertan hori landu.

Edukiei dagokienez, *Natura, Gizarte eta Kultur ingurunearen ezagutza* arloan 8. blokean Nafarroako Foru Komunitateari dagokiona, azaltzen da liburutegia:

▸ Eskolako liburutegian informazioa bilatu Nafarroako eskualde geografikoek bereizgarri dituzten animalia-landareen gainean (lehen zikloa).

▸ Eskolako liburutegian informazioa bilatu (entziklopediak, monografiak, DVDak, webguneak eta abar,) Nafarroako folklore eta herri tradizioen gainean (bigarren zikloa).

▸ Eskolako liburutegian informazioa bilatu (monografiak, entziklopediak, DVDak, webguneak, eta abar) Donejakue bideko nafar zatiaren monumentu nagusien gainean (hirugarren zikloa).

Curriculumaren arlo horren *ebaluazio irizpideetan* hiru zikloetan ageri da eskolako liburutegia. Lehen zikloan:

11) Hizkuntza mintzatua eta idatzia erabiltzea bere bizipenak kontatu, pentsamenduak adierazi eta gizarteko nahiz naturako errealitatearen alderdi desberdinak ikertzeko. Arloaren gaineko testuak irakurri.

Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko hizkuntza gaitasuna beretu duten ikasleek arloko testuetako ahozko eta idatzizko adierazpenari dagokionez, eta zenbateraino erabiltzen duten ikasitako lexiko berariazkoa. Kontuan hartuko da eskola liburutegiko funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna.

Bigarren zikloan:

11) Aurretik mugatutako gertaera edo fenomenoek gaineko informazio ardurakoa lortzea, gizarteko nahiz naturako gertaeren gaineko aurreikuspenak egin, zuzeneko nahiz zeharbidezko obserbazioan lortutako datuak bilduz oinarritzko iturriak kontsultatzetik abiatuta, eta emaitzak aditzera ematea.

Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko gaitasuna lortu duten hipotesiak egiteko, bai modu naturalean izaten diren gertaeren gainean... Kontuan hartuko da eskola liburutegiko funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna.

12) Ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea gizarteko nahiz naturako alderdia adierazteko. Arloaren gaineko testuak irakurtzea.

Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko hizkuntza gaitasuna beretu duten ikasleek arloko testuetako Ahozko eta idatzizko adierazpenari dagokionez, eta zenbateraino erabiltzen duten ikasitako lexiko berariazkoa. Kontuan hartuko da eskola liburutegiko funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna.

Hirugarren zikloan:

10) Txosten bat aurkeztea, euskarri informatikoan eta paperezkoan, problema edo egoera sinpleen gainean, hainbat iturritako informazioak bilduz (zuzenekoak, liburuak, Internet), lan plan bati segituz eta ondorioak adieraziz. Nafarroako ondare kultural eta artistikoaren gaineko ikerketak egitea, eskola liburutegiko materiala oinarri hartuta.

Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko gaitasuna beretu duten ikasleek informazio zehatza eta ardurakoa bilatu, hautatu eta antolatzeke, emaitzak aztertzeke, ondorioak atera, esperientzia adierazi, egindako prozesuaren gainean gogoeta egin eta ahoz nahiz idatziz aditzera emateko. Ebaluatuko ere da idatzizko dokumentuak kontsultatu eta erabili diren, irudiak, grafikoak eta taula estatistikoak atera diren. Kontuan hartuko da eskola liburutegiko funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna. Garrantzi berezia emanen zaio euskarri digitalean eta paperean modu ordenatu, argi eta garbian aurkezteari.

11) Ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea gizarteko nahiz naturako alderdiak adierazteko. Arloko testuak irakurtzea.

Irizpide honek ebaluatu nahi du zenbateko hizkuntza gaitasuna beretu duten ikasleek arloko testuetako Ahozko eta idatzizko adierazpenari dagokionez, eta zenbateraino erabiltzen duten ikasitako lexiko berariazkoa. Kontuan hartuko da eskola liburutegiko funtsak maneiatzen lortutako trebetasuna.

1.2.3 Eskolako liburutegia eta hobetze planak

2003-2004 ikasturtearen bukaeran Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleei Gaztelania, Euskara, Matematika eta Ingurunearen Ezagutza irakasgaietan kanpo frogak egin zitzaizkien. Bertan Lehen Hezkuntzako 2. eta 4. mailako ikasleen emaitzak ikusirik, eta hauek hobetzearren, hobekuntza plan batzuk abiadan jarri ditu Hezkuntza Departamentuak. Hauen helburu nagusia Haur eta Lehen Hezkuntzako haurren oinarrizko gaitasunetan duten maila goratzea, eta DBHra aurreko etapako helburuak gaindituta pasatzen diren ikasleen kopurua handitzea da.

Ikastetxeko irakurketa planak, Lehen edo Bigarren Hizkuntzan, lehenbiziko xedea izan behar du ikasleen hizkuntza gaitasunen maila areagotzea. Modu esanguratsuan irakurtzeko behar diren gaitasunak garatzea edo zuzentasunez irakurri edo idaztea ez da bakarrik hizkuntza irakaslearen ardura; irakasle guztien interesekoa da ikasleek arloetako ikaskuntzan beharrezkoak diren testuan erabiltzen ikas dezatela, eta beraz, helburu hori klaustroak bere osotasunean hartu beharko luke proiektu komun gisa. Irakurketa planak egiteak ikastetxeko irakasle guztiei eragiten die, eta irakasleek erabaki behar dituzte ikasturte bakoitzean lehentasunezko hobekuntza ildoak eta ildoak gauzatzeko estrategiak. Estrategia horien artekoa izan behar du eskolako liburutegia zeharkako lan bezala erabiltzeak eta arlo bakoitzeko ikaskuntzarako berariaz erabiltzeak. Beraz, hezkuntza proiektuak, urteko plan orokorrak eta arloetako programazio didaktikoez eskolako liburutegiaren erabilera kontuan hartuko dute eta dagokion ikasturterako diseinatu diren jarduerak aipatu beharko dituzte. Irakurmena mintzamenari eta idazmenari zeharo loturik dago; idazten ikastea, beraz, ez da ikastetxeko irakurketa planetik banatu behar. Irakurketa planak, helburu horretaz gainera, ikastetxeko eguneroko bizitzan irakurtzeko sortzen diren aukerak aintzat hartu beharko lituzke. Aukera hauek ez dute zentzurik eskolako liburutegiak sustatzen ez baditu. Dena den, hau heziketa-prozesu konplexua da, irakasle guztien elkarlana behar

duena. Ikastetxeko jarduera pedagogikoa eskolako liburutegiaren inguruan antolatuko bada, erabiltzaileen prestakuntza da liburutegiak dituen ahalmen guztiak martxan jartzeko bidea. Horregatik, ez da zentzuzkoa prestakuntza jarduerak era isolatuan proposatzea. Liburutegiko lan hezitzailea irakasle talde osoaren ardura da. Arlo guztiekin lotura duen proiektua da, beste hainbat ikaskuntza proiektuekin elkarbizitzan dagoena.

Hau guztia kontuan hartuz, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentutik Eskolako Liburutegiak nola eraiki eta antolatu behar diren azaltzen duten liburuxkak argitaratu ditu. Honekin batera bilduma berean liburutegia erabiltzeko eta liburuak erabiltzeko jarduerak proposatzen dira helburu nagusia lortzearren: irakurzaletasuna bultzatzea.

2. MARKO TEORIKOA

Antzina, liburutegiak agertu ziren arte, idazkiak tenpluetan eta erregeen jauregietan gordetzen ziren. Liburutegirik zaharrenak Asirian eta Babilonian sortu ziren, K.a. 500. urte inguruan. Haiei esker iritsi zaizkigu Antzinateko dokumentu eta gertaera asko. Liburutegi haiek, gaur ditugunez bestelakoak izaten ziren. Ez zuen edonork zilegi haietan sartzea eta ez zen dokumenturik inoiz ere ateratzen handik. Julio Zesarrek sortu zituen lehenbiziko liburutegi publikoak Erroman, baina XIX. mendera arte ez ziren gehiegi garatu. Europako lehenbiziko mailegu-liburutegia XVIII. mendean sortu zen, Edinburgon, Eskozian (Illescas, 2003).

Gaur, liburutegien helburu nagusia beste bat da: herritarren artean jakintza zabaltzea; eta honetarako, kontsultarako aretoa, etxerako mailegua, Internet bidezko katalogo-kontsultak eta antzeko zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Gainera, ezaguna da gaur egun liburuak ez direla dauden informazio iturri bakarrak ezta liburutegia informazioa lortzeko gune bakarra ere. Horregatik zailagoa suertatzen da liburutegia eguneroko bizitzaren zati bezala hartzea eta liburuak telebista bezain interesgarri eta entretenigarri izan daitezkeela zabaltzea. Bestalde, liburuak norberaren bizitzan garrantzirik ez badute, gauza arrunten moduan erabiliko dira, inongo begirunerik gabe, hondatzeraino iritsiz, bereziki gureak ez direnean; eta nola

bihurtzen dira beraz liburuak pertsona baten bizitzaren zati esanguratsu? Txikitatik liburuekiko interesa piztuz. Baina haurtzaroan hori egiten edo lortzen ez bada ez da esan nahi bizitza osoan pertsona horrek irakurriko ez duenik. Gerta daiteke momentu batean, zerbaitenganako interesa piztea eta horren gainean gehiago jakiteko irakurtzen hastea. Beraz, eboluzio-gaitasunean konfiantza izan behar da. Gizakiaren aukera guztiak haurtzarotik halabeharrez determinatuak ez daude eta adin guztiek desiorako joera baldin badute, zergatik ez irakurtzeko ere? Dena den, ezin da ahaztu irakurtzeak hainbat prozesu kognitibo jartzen dituela martxan eta hortaz, ezinbestekoa dela irakurmenaren ulermena eta irakurmena orokorrean eskolan lantzea.

Horregatik ahalegin ugari egin izan dira zenbait ikastetxetan eta hainbat pertsonaren aldetik eskolako liburutegia sortzeko nahiz eta kasu guztietan ahalegin horiek ez duten fruitu emankorrik eman. Honetarako eskaera sozialik ez dago; administrazioek egiten duten ahalegina ez da nahikoa, eta gainera ez dute jarduera horiek aurrera eramanez ahal izateko langile nahikorik jartzen. Beraz, ez da benetan liburutegia ongi funtzionatzeko bultzatzen. Liburuek, gainera, bere xarma eta erakargarritasuna galdu dute gaur egungo gazte, guraso zein irakasleengan eta berriagoak diren beste baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoak direnengatik ordezkatuak izan dira.

Esanak esan, eta beti salbuespenak salbuespen, esan beharra dago eskura dauden baliabideez baliatu behar dela eskolako liburutegia ikasleen artera eramateko, baina jakinaren gainean, beti ez dela arrakastarik izango. Ezin da eskolako liburutegiaren alde lan egiteari utzi, baina ahalegina inuzentea izan ez dadin, pentsatu behar da ez dela hain erraz irakurzaletasuna piztuko ikasleen artean.

Izan ere, lehenago esan den moduan, bakoitzak momentu batean hartzen du irakurtzeko gogo edo zaletasun hori. Agian txikitan, gurasoek ipuinak kontatzen dituztenean edo aurrerago gurasoek zein irakasleren batek irakurtzen duelako eta hauek imitatzeagatik gustua hartzen diote, momentu bakarti eta intimo bat bizitzeagatik... Irakurle bakoitzak bere bidea egiten du, zaila da zehaztea noiz hasten den. Irakurtzeko ohitura arrazoi ezkutuen ondorioa da, horregatik zaila da formula zehatzak ematea ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko. Beraz, dauden aukera guztiak aprobetxatu behar dira irakurtzen hasteko eta hau egitera bultzatzeko; eta eskolako liburutegiaz baliatzea aukera ona izan daiteke (Coronas, 2000, 5).

2.1 Eskolako liburutegia erabiliz

Eskolako liburutegiak ikas-baliabideen eta materialen demokratizazioa ahalbidetzen du, bertaratzen diren pertsona guztien eskura jartzen baititu. Ezberdintasunak berdintzen laguntzen du, etxean hainbeste baliabiderik ez duten neska-mutilen eskura baliabideak uzten dituelako. Zibilizazio gunea da, gogoetarako eta ikasteko giro lasaia eskaintzen duelako. Lankidetzan ibiltzeko tokia, neska-mutikoek elkarrekin eta elkarren artean denbora, lana eta irakurketak egin ahal dituztelako. Bestalde, irakurzaletasunaren bultzatzailea da, bertara hurbiltzen diren haurrak behar bezala motibatuta baldin badaude eta gogoz hurbiltzen badira, kontsultak egitera edo gainetik irakurtzera joango dira. Informazio iturri ezberdinak kontsultatzeko aukera ematen du liburutegiak: liburuak, aldizkariak, prentsa, argitalpen alternatiboak, bideoak, CD-ROMak, internet etab. Ikastetxean egiten diren argitalpen guztiak bertan bildu daitezke: aldizkariak, dosierak, monografiak, liburuxkak eta ikasgeletan prestatutako zeinahi material. Liburutegia ikasi ahal izateko gune ezin hobea da, ikasleak apalategietan eskura dituen materialak erabiliz gero (Coronas, 2000, 6-7).

Beraz, aukera pedagogiko guzti hauek bete ahal izateko eta liburutegia benetako ikas gune bilakatzeko lehenengo pausoa sarbidea erraztea da. Horrenbestez, liburutegirako prestakuntza programa bat, jarduera edota unean uneko estrategia multzo bat baino gehiago da, eta abiapuntua gunearen eta baliabideen antolaketa izan behar du. Irakurzaletasuna bultzatzeko edozein proiektu eskolako liburutegiaren funtzionamendu onetik pasa behar du. Liburutegiak liburu eta ordenagailuekiko tratua normalizatzen du eta ikerketa nahiz lan kooperatiboak bultzatzen ditu bai eta informazio iturri ezberdinen lanketa ahalbidetu ere (Arellano, 2002). Hortaz, ez da nahikoa liburutegia egotearekin. Honen erabilera bultzatu behar da eta ez soilik ikasleena. Izan ere, hauek ez dute liburutegia erabiliko irakasleek erabiltzen ez badute. Eskola komunitate osoa inplikaturik egon behar du proiektuaren barruan. Hau da, bakoitzak ahal den neurrian lagundu beharko du liburutegia aurrera eramaten. Bestalde, oso garrantzitsua da neska eta mutilak irakurtzera animatzeko, irakasle talde batek lehenago bere buruari irakurtzera bultzatzea. Beti talde moduan, eskola moduan, ez abentura pertsonal bat bezala. Baina denboran aurrera egiten jarraitzeko beharrezkoa da eskola komunitatearen kolaborazioa. Beharrezkoa da, ahal den

neurrian, guraso, ikasle, erakunde eta auzokoen laguntza.

Denon artean jarduera ezberdinak antolatu daitezke liburutegiaren sarrera errazteko eta honekin irakurtzearena. Hauen artean haurraren eta eskolako liburutegiaren arteko uztardura afektiboa bilatzen duten ekintzak egin daitezke. Hala nola, irakurle txartela, irakurle kluba, aldizkari baten argitalpena edo ikasle batzuei liburuzain lanetan jardun dezaten uztea. Gainera ohiko jarduerak egin beharko dira besteak beste egunero irekitzea (eta ez soilik eskola orduetan), maileguak, mahai inguruak, bestelako ekintza kulturalak egitea etab. Adibidez, liburutegia eskola orduz kanpo irekitzen bada, norbait liburutegiaren arduran egon beharko du eta lan honetan guraso edo auzoko jendea egon daiteke, beraz, ikaskuntza komunitatea parte hartuko du. Azkenik, kultur sentibilizazioko ekintzak eta eskola erkidegoa partaide bihurtzeko ekintzak egin ahalko dira. Liburutegia kultura sustatzeko tokia izango da, eta gainera, liburu berrien, prentsako materialen, posterren erakusketa txikiak egingo dira, askotariko informazioa eskainiko du, eta liburutegia, azkenik, bultzatzailea izango da hainbat kultur ekintza interesgarri burutzeko. Adibidez, ipuin kontaketak egitea edo eskolan egiten diren argitalpenak erakusteko tokiak sortzea. Izan ere, idazketa eta irakurketa eskutik helduta joango dira eta horregatik ikasgelan lantzen eta sortzen diren ipuinak, berriak, elezaharrak, olerkiak... liburutegira eraman daitezke bilduma moduan. Horrela guraso edo auzoko edozein bertara hurbildu daiteke ikastetxean egindako lanak ikustera.

Hala ere, ez dago metodo finko, hautatua eta eraginkorra denik. Haurrak beren gurasoei irakurtzen ikustea ez da nahikoa hauek irakurtzen hasteko. Beharrezkoa bai baina ez nahikoa. Horregatik garrantzitsua da animazio sistematikoa, jarraitasun bat duena, animazio folklorikotik bereiztea. Zertarako ospatu Liburuaren Eguna egun horretan irakurriko diren liburuekin lan egin ez bada? Lehiaketak, erakusketak etab. oso baliagarriak dira bertan dagoena, astero irakurketa orduan eta gelan lan egindakoa bada. Ikasleek ez dute gehiago irakurriko komiki zaharren erakusketa bat antolatzeagatik edo ipuin kontalari bat entzuteagatik. Ez, liburuaren eginkizunarekin zuzenean erlazionatzen badira. Eskolan egin behar diren jarduera guztiak, ohikoak edo jaiegunetakoak, irakurmen oinarri bat izan behar dute, literaturaren lanketan funtsatua.

2.2 Irakurtzeko irakurri

Baina irakurtzea ekintza bat da, esfortzua exijitzen duen ohitura. Animatzera jolas daiteke baina motibagarri den neurrian.

“... en la animación lectora se lee muy poco; lo que se hace en ella es jugar con la lectura. Incluso se trasladan juegos sociales a su ámbito, cultivando, no la competencia lectora, sino la competitividad social y psicológica, entre sus jugadores. De este modo, la lectura serviría para demostrar quién es el mejor haciendo esto o aquello. (...) problema añadido. Porque no leemos para ser más que los otros, sino para saber más de nosotros mismos y ser, en la medida de lo posible, más discretos, más silenciosos y más pacientes. La verdad es que la animación lectora es maravillosa hasta que se manda leer a sus participantes” (Moreno, 2011, 14)

Gero, esfortzu pertsonala, bakartia eta intimoa dator. Ez da aurkituko jolasik, gomendiorik edo animaziorik indibiduala den irakurtzearen ekintza ordezkatu duenik eta gaur egun, geroz eta handiagoa den esfortzu eskatzen duena.

Irakurtzeak, lasaitasuna, arreta, bakardatea, kontzentrazioa, geldialdia, esfortzua dakar. Ikastetxeak edo irakasleak liburuak hurbildu ditzakete, hauetaz hitz egin, interesgarrienak direnak gomendatu edo eskaini. Baina ohitura, eta azken finean, irakurzaletasuna aurkitzea (irakurtzearekin gozatzea), liburuen orrialdeetan ezkutatu dagoen mundua aurkitzea, norberaren lana da, ikasle bakoitzaren lana. Dena den, ezin da ahaztu, eta bereziki hezkuntzan eta irakurketan, erein egin dena lehenago edo beranduago bilduko dela. Hortaz, irakasleek bere lana galdutzat ezin dute eman eta ahalegin guztiek merezi izango dutela jakin behar dute. Horregatik irakasleek ere beren ikasleei irakurri behar diete. Nahiz eta jakin hori ikasleek irakurtzeko nahikoa ez izan (gurasoekin bezala) eta are gutxiago berehalako erantzuna izango duena, oso garrantzitsua da irakasleek irakurtzea.

Izan ere, ez irakasleek ez inork ere ez ezin dute liburu baten gomendiorik egin hau irakurri ez badute. Eta gomendatu ez badute, gutxiago oraindik beren irakurketa atsegina egitea. Beraz, ezinbestekoa da irakasleak ikasleei eskatzen dien lan berdina egitea: irakurtzea. Liburuak aukera ditzala, beren ikasleei gomendatuko dizkienak eta

irakur ditzala. Baina irakur ditzala. Gutxinaka-gutxinaka, disfrutatuz eta beren kalitate literarioa baloratuz (ezin da ahaztu haur eta gazte literatura ona heldu batek irakur dezakeena dela). Ikasleek irakurle diren irakasleak irakurle ez direnetik bereizten dituzte alderantziz gertatzen den bezala (Claustro de profesores del colegio público D.^a Álvara Álvarez de Falces, 2005).

Irakurtzearen ekintza aurrera eraman ahal izateko Lehen Hezkuntzako ordutegia ikastetxe publikoetarako arautzen duen Foru Aginduak⁸ ikastordu bat ezartzen du astean irakurtzeko “asteko irakurraldia” egiteko alegia. Eskolako liburutegiak koordinatuko ditu eskolako liburutegiko espazioaren erabilera eta bertako funtsen mailegua, “asteko irakurketa saio” horretatik eratorritako irakurketa beharrak asetzeko. Irakurketa saio hau erraza izango da, testu ugariak eta desberdinak erabiliz. Bakarka, taldeka eta isilik edo goraki egin daiteke. Bakarka irakurtzeko, ikasleak nahi duen liburua hautatuko du literaturako nahiz dibulgazio zientifikoko liburuen multzo batetik. Baina ikaslea lan horretan orientatzen lagundu behar du irakasleak. Horregatik, irakaslea goraka zenbait liburu edo hauen zatiak irakurtzea ere garrantzizkoa da. Izan ere, bistaz gauzak sartzen zaizkigun moduan belarritik ere sartzen dira eta istorio bat entzutean interesgarria iruditu ahal zaigu eta istorio hori nola jarraitzen duenaren jakin-mina sortu. Beraz, ikasle horrek liburu hori hartu dezake istorio hori nola jarraitzen duen irakurtzeko eta modu horretan irakurtzen jarriko da. Baina berak erabaki duelako liburu hori irakurri nahi duela. Hau da garrantzitsuena. Ikaslea pozik egotea aukeratu duen liburuarekin. Horrela zilegi izango du bat utzi eta beste bat hartzea, irakasleak lagunduta. Bestalde, liburu horiek eskolako liburutegitik edo ikasgelako liburutegitik hartuak izan daitezke.

Irakurraldia derrigorrezkoa da ikaslearentzat. Irakurtzeko ohitura eta atsegina bultzatzeko moduan antolatu behar da beraz asteko irakurraldi saioa. Baina nahiz eta ikasle batzuekin aurreko jarduera funtzionatuko duen beste askorekin ez. Horregatik irakasleak modu aktiboan jokatu behar du eta jarduera ezberdinak antolatu ikasleak motibatuzeko, hauen adina eta interes zein gustuak kontuan harturik. Gero, gehien komeni zaizkien liburuak aukeratzeko eta ikasleek atseginez irakurtzen hasteko. Ezinezkoa da eskoletan irakurleak osatzea irakasleek liburuak eskola lanerako objektu

⁸ 339/1999 Foru Agindua, irailaren 30ekoa, NAO, 1999ko urriaren 13ko alea, 128. zk.

moduan tratatzen badituzte. Ikasleei liburuekiko ikuspegi ezberdina erakutsi behar zaie. Jakin dezatela testuliburuez gain badirela mota askotako liburuak eta gai asko jorratzen dituztela. Bakoitzak izan dezala aukera gustuko duen zerbait irakurtzen hasteko.

2.3 Liburuak

Batzuetan, ikasleek liburuen gainean duten erreferentzi bakarra testuliburuak izaten dira eta hortaz, hauekin elkarlotzen dute irakurtzea eta oso zaila da atsegina aurkitzea. Izan ere, testuliburuak eskolarekin era zuzenean lotuta daude eta irakurtzea eskolatik haratago doa. Testuliburuaren eraginaren kaltegarriena zera da, "... zenbait gai prozedura estilistiko zehatz batzuekin elkartzeraz ohitzen dutela irakurlea. Errepikatzea ez da akatsa, eskola zaharra baizik. Hizkuntza ez da biktima bakarra. Biktima nagusia formula urri eta monotono bakar batzuen ezagutzan trebatua izan den irakurlea da. Betiko lelotik pixka bat urruntzen badira zalantzan murgiltzen da. Ate anitz itxi dizkioten irakurlea. Lengoia murriztu baten ordaina beti da pentsamendu hankamotza" Alejandro Rossik dioen moduan (Moreno, 2000). Liburuei buruz dugun irudia testuliburuez izaten den iruditik eratorria bada, ez da erraza lortzen ikasleek liburuei buruzko ideia ona eta positiboa izatea.

Horregatik, askotan esan den bezala, oso garrantzitsua da guztion betekizuna. Familiak, irakasleak, liburutegi publikoa, eskolako liburutegia... Guztiek parte hartu beharra dute ikasleei liburuengana hurbiltzeko eta hauekiko interesa pizteko. Ezagutu dezatela liburu ezberdin asko existitzen direla eta hauen barruan gauza ezberdin asko kontatzen direla. Adibidez, ikasleei arlo guztietako material dibulгатiboak irakurtzeko aukera eman ahal zaie ikasgelan, irakastorduetan irakurtzeko eta material guzti hauek eskolako liburutegitik hartuak izan daitezke. Honetarako ongi antolatu eta dinamizatu behar dute liburutegia. Testu liburuak ezin da izan ikasleek irakasgaia ikasteko erabiliko duten iturri bakarra. Horrela, eskolako liburutegiak ikasleek curriculumeko edukian garatzeko eta ulertzeko beharrezko material eta baliabideak izan behar ditu⁹: entziklopediak eta hiztegi tematikoak, arlo guztietako ezagutza eta dibulgazio liburuak, arloaren gaineko fikzio liburuak, multimedia dokumentuak, internetera konexioa, eta

⁹ Irakurketa planaren oinarritzko ardatzak. Diseinu eta Curriculum Garapenerako Unitate Teknikoa (2002).

abar. Gainera testu eta material edo liburu ezberdinekin lan egitean, hauek irakurtzean ikasleak konturatuko dira hizkuntza bera ezberdina dela. Hau da, ez dela berdina testu zientifiko bat irakurtzea edo ipuin bat, erabiltzen dituzten hitzak ezberdinak direla, hizkuntza literarioa testuliburuetan agertzen den hizkuntzaren ezberdina dela.

Bestalde, askotan esan ohi da liburua objektu magikoa, zoragarria eta fantastikoa dela (Moreno, 2000). Baina ikasle askorentzat hauek dira beren ikasketen porrot garbiaren adierazleak. Hortaz, ikasle hauen aurrean liburuak goraiatzea ez da hastapen pedagogiko ona. Horregatik hain zuzen ere, liburuen irudia aldatu beharra dago. Ikasleek liburuetara hurbildu behar dute eta haiek izan daitezela berriro hauen aurrean duten irudia berreraikitzen dutenak. Beraz, ikasgelako liburutegia haiek sortzea eta antolatzea oso ideia aproposa da liburuarekin beste modu batean lan egingo dutelako. Hau da, ez dute liburua irakurri behar, behintzat hasieran, baina badute aukera liburu ezberdinak ezagutzeko, izenburuak zein idazleak ezagutzeko eta liburuak hartuz eta ikusiz hauenganako interesa aldatzea. Kanpotik barrurako lana izan behar da. Azkenean liburuak objektuak dira bai baina errealak, gero kontatzen dutena bestelako sentimenduak sor ditzaketena. Baina ikasleek beraiek bakarrik aurkitu behar dute, haien iritzia sortu liburuak irakurtzen hasten direnean. Ez orain arte irakurtzen duten moduan, behartuta, astero liburutegitik liburu bat hartu behar dutelako etxean irakurtzeko. Modu honetan irakurtzea tortura bat da betebeharrera lotuta baitago.

Hortaz, astero saio bat irakurketa egitera derrigortzea ez da ikasleek irakurtzeko modurik egokiena. Ezin zaie irakurtzera behartu kirol zehatz bat egitera behartu ezin daitekeen bezala. Ezin zaie irakurtzen ez dutelako zigortu eta gutxiago oraindik irakurketarekin zigortu. Gustukoa ez duten liburu bat irakurtzeko bidaltzea ez da zuzena eta liburuak beste etxerako lanetan bihurtzea ezta. Ezin da liburu bat hasieratik bukaeraraino irakurtzeko exijitu edo irakurritako liburu bat komentatzera behartu (Pennac, 2005 [1992]). Bai ordea irakurri nahi badute aukera hori eman; eta hau eskolako liburutegiaren bidez egin daiteke.

2.4 Literaturarekin konprometitutako eskola

Esan bezala, eskolak (eskolako liburutegitik izan daiteke) ikasleei irakurtzeko aukera eskaini behar die. Testu mota ezberdinetako irakurketak ahalbidetu behar ditu eta

literarioak nagusietako bat izan behar dira. Hortaz, Marina eta De la Válgoma (2005, 48), literaturarekin konprometitutako eskola literatura gozatzeko, atsegina izateko eta disfrutatzeko iturri bezala hartzen duena da irakurketa curriculumaren barne hartzen duelarik. Hala ere, testu aukeraketa ona egin behar da ikasleen interesen eta gustuen arabera eta hauen egoera familiar, pertsonal eta sozialak kontuan hartuz. Gainera, literatura baliabide moduan erabiltzen du edozein motatako mezuak jasotzeko eta emateko pertsonak prestatuz. Pertsona hauek irakurketarekin disfrutatu eta irakurketa komentatu dezake, beren kultura osatzen dute bai eta iritzi ezberdinen aurrean ulermena lantzea ahalbidetzen du. Horrela gizartean dauden gai ezberdinak: osasuna, aukera berdintasuna, askatasuna eta dignitatea... lantzen dira eta ikasleek identitate pertsonala eta soziala bereganatzen dute. Beraz, literaturarekin konprometitutako eskola bat, literaturaren ikasketaren planifikazio sistematiko eta koherentea izateaz gain, pertsonaren aberasgarritasunerako eta gozatzeko momentu indibidualerako literatura erabiltzen duena da; bai Haur Hezkuntzan bai Lehen Hezkuntzan. Hau lortzearren eskolako nahiz ikasgelako liburutegiak bultzatzen dituen da eta egongo ez balira, hauen eraikuntza bermatuko lukeena.

Gainera, eskola honek edozein momentutan edo momenturo, irakurketa bermatzen du: irakasleen irakurle ereduaren bidez, ikasgela kanpoko ekintzen bidez, oporretan, ospakizun zehatzetan eta egun berezietan Liburuaren Eguna bezalakoak... Bestalde, ikasle bakoitzaren segimendu indibiduala egin behar du beren beharretara egokitze. Hau bereziki ikasleek irakurmenaren eta ulermenaren gaitasuna garatu dezaten. Azken finean, irakurketa bere osotasunean sustatzea.

Hala ere, ikastetxe bakoitzaren errealitatea bestelakoa da eta hori oinarritzat hartu behar da gero egin nahi diren proiektu guztiak aurrera eramanez ahal izateko. Beraz, irakurketari dagokionez, eskolako liburutegia izatea eta hau era egokian hornitua eta antolatua izatea ezinbestekoa da.

2.5 Idazteko irakurri eta irakurtzeko idatzi

Irakurketa eta idaztea bateratzea eta elkarlotzea oso garrantzitsua dela ikusi da askotan. Irakurri eta idatzi. Idazketa irakurtzearen ondorioetariko bat izan daiteke baina baita bere jatorria: irakurri eta idatzi elkarri elikatzen dira (Mata, 2008).

Hizkuntzak, estiloak, testuinguruak kopiatzea gero, aurrerago, hauen influentzia izateko eta gure liburutegi mentalaren parte izan daitezela idatzi behar dugunean erabili ahal izateko. Izan ere, idazle profesionalek egiten dutenaren oso ezberdina da? Idatz ohi duenak beti irakurri ohi du. Olerkiak idatzi irakurri ondoren. Legendak asmatu asko ezagutu ostean. Ipuin klasiko baten ingurugiroa erreproduzitzea baina beste pertsonaia batzuekin edo beste helburu batzuekin. Edo beste genero batzuetan irakurgaiak berregitea, birsortzea: muraletan, komikietan, marrazkietan... Askok dira egin daitezkeen jarduerak ikasleak idazten ikasteko eta irakurtzeko.

Nire ustetan, hizkuntza saioetako bat ipuin tailerra egiteko erabili daiteke adibidez. Horrela ikaslea astero izango du aukera idazketan aritzeko eta bide batez ipuinak sortzeko. Izan ere, idazten ikasteko modu bat izan daiteke ikaslea gaztea bada gero aurrerago beste testu mota batzuk idazteko balioko diona. Hortaz, ipuin ezberdinak sortuko ditu idazten ohitzeko eta ikasteko. Esaldien egiturak ikasten dituen bitartean (ipuinaren estrukturan barne), irudimena landuko du. Lehen esan den moduan idazteko irakurri behar denez, ipuin batzuk hartuko ditu eskolako edo ikasgelako liburutegitik eta hauek nolako estruktura duten ikusi. Nola deskribatzen dituzten pertsonaiak eta egoerak, nola kokatzen diren denboran... Ipuin horiekin beste ipuin batzuk sortuko dituzte ondoren.

Hala nola, ipuin baten pertsonaiak beste ipuin bateko gertaerekin edo beste baten kokalekuan ipiniz. Berez, ez dute ipuina asmatuko baizik eta zeuden ipuinak nahasiz berri bat eraiki. Horrela ipuin liburuekin ohituko dira eta dagoeneko ez dituzte helburu bakar batekin irakurriko. Beste ipuinak sortzeko balio dutela ikusiko dute. Bestalde, badira ipuin batzuk amaiera irekia dutenak eta beraz, hau asma daiteke. Ipuina nola bukatuko den sortu. Edo amaiera baldin badute, aldatu. Beste bukaera bat egin dezakete. Ipuinen amaierekin egiten den moduan, ipuinaren beste zati batekin egin daiteke. Hau da, pasarte edo gertaera bat asmatzea. Adibidez, amak ze ohar idatziko dion alabari, edo ze istorio zahar kontatuko dion amonak, zer bizimodua izango zuen aurretik txakurrak...

Ipuinak sortzen irakatsi behar zaie ikasleei. Ezin dira orri zuri baten aurrean plantatu eta istorio bat asmatu. Horregatik oso garrantzitsua da ereduak izatea eta hauetatik hastea. Gero badira ipuinak asmatzeko eman ahal zaizkien ideia asko. Besteak beste,

ipuinen zein esaldirekin hasi behar diren, edo ze pertsoniak agertu behar diren edo ipuin baten portada hartuta edo ipuin batean agertzen den irudi batetik istorio bat asmatzea. Berdina egin daiteke aldizkari batetik hartutako irudi zein argazkietatik ere.

Ondoren, asmatutako ipuinak gelan denon artean irakurtzea ezinbestekoa da. Izan ere, horrela ikusiko dute zein akats eta zein ongi egin dituzten. Gainera, konturatu gabe literatura irakurriko dute nahiz eta idazle famatu edo profesionalena ez izan. Irakurtzera bultzatzeko beste aukera ona izan daiteke beraz. Alde batetik, liburutegiko ipuinak irakurriko dituztelako berriak asmatu ahal izateko. Eta bestetik, asmatutako ipuinak irakurriko dituzte. Gero hauekin bilduma bat sortu daiteke eta eskolako liburutegian utzi edo lehiaketaren bat egin. Liburutegian hasiko da dena eta liburutegian bukatu. Azken finean, irakurri idazteko, baina idatzi baita aurretik eta ondoren irakurtzeko ere.

2.6 Irakurketa

Irakurketa bakarka egiten den jardura da, pertsonala. Horregatik bakoitzak bere momentua eta tokia bilatzen du, norbanakoa eta liburuaren artean isolatzeko. Irakurketa bakardadea da, kontzentrazioa, isiltasuna, mugikortasun fisikorik eza, isolamendua eta beste edozein jardura behin-behinekoz alde batera uztea eskatzen duen jardura da. Hortaz, eskolaren ardura irakurtzeko gai izateko tresnez (liburutegia adibidez) hornitzea da, tresna horien bidez ikasleak nahi duenean irakur ditzan testuak. Horrekin atsegina hartzen duen edo ez, bere kontua izanen da.

Irakurle diren neska edo mutil batek irakurtzea gozatzeko, abenturak bizitzeko eta ongi pasatzeko jardura bezala hartzen du. Beren aisialdiaren zati garrantzitsu bat irakurtzeko erabiltzen dituzten haurrak dira hauek, liburutegietara joaten direnak eta beren liburutegi pertsonala sortzen hasten direnak. Beraz, liburuak begirunez tratatzen dituzte. Irakurtzea gustatzen zaien hurrek irudimena lantzen dute eta testu idatzien gainean jarrera kritikoa izaten dute. Izan ere, ohituta daude mota ezberdinetako testuak irakurtzen eta ondorioz, beste testuen gaineko interesa izaten dute hala nola poesia, komikiak edo autoreen gaineko informazioa bilatzen dute. Gainera, irakurri dituzten liburuak komentatzen dituzte eta hauen gaineko iritziak egin (García Sobrino, 1994). Baina, haur guztiak ez dira irakurle. Haur askori ez zaie irakurtzeak dakarren

isolamendua eta kontzentrazioa gustatzen. Haur hauek ez dute norbanakoa izan nahi. Haur izan nahi dute eta haiekin egon, taldean ibili. Gazteak ihes egiten dio bakardadeari. Bestalde, haurra ez da geldirik egotekoa; gauzak egiten dituen bitartean bizirik dagoela sentitu nahi du. Irakurketa adimenarekin bidaia egitea da baina gorputza aulkiari itsatsita (Moreno, 2000). Horregatik askorentzat irakurtzea ez da jarduera atsegina. Azken finean, haur guztiek ez dute lehentasun edo gustu berdinak. Haur bakoitza ezberdina da eta ezberdina den neurrian beren gustuak ere ezberdinak izango dira.

Beraz, ezin dugu guztiak ikasle mota bat bihurtu. Bai ordea irakurle direnak errespetatu eta gainontzekoak irakurle izateko aukera bermatu. Irakurle ez den haurra edo gutxi irakurtzen duena liburua ezagutu ahal izatea, beregan irakurtzearen gozamina garatzea. Liburuaren aniztasuna ezagutzera eta irakurketa pasibotik aktibora igarotzera lagundu behar zaio, Lage (2005). Hau egiteko irakurle den pertsona batek beharrezkoak eta beretzat hartzen dituen eskubideak kendu gabe egin behar da. Hau da, ez irakurtzearen eskubidea izatea, orriak saltatzearen aukera, liburua irakurtzez ez bukatzea, edozein gauza irakurtzeko eskubidea edo edozein lekutan egitea... (Pennac, 2005 [1992]).

Dena den, isiltasuna gordetzea irakurle guztion eskubidea den arren, liburu bat irakurri ostean irakurritakoaz hitz egitea edo idaztea edo marraztea ulermenaren aukerak biderkatzen dira (Mata, 2008). Honekin esan nahi da liburu baten irakurketa egin ondoren honek sorrarazi dituen sententzioez hitz egitea edo hauek azalratzea benetan bereganatzen laguntzen duela. Liburu batek edo irakurritako testu horrek guregan izan duen eragina manifestatzean edo beste irakurleekin elkarbanatzean eta hauengan izan duen eragina ezagutzean, irakurtzea zer den hobeto ulertzea ahalbidetzen du. Irakurtzearen benetako esanahia ezagutzera eramaten zaitu.

Bestalde, ikaslea irakurtzen aspertzeak ez du esan nahi irakurri behar ez duenik edozein motatako kontzeptu bat ikasteko balio duen bitartean. Izan ere askotan ikasleak motibatu nahian horretan geratzen da dena, motibazio hutsean, jolasean. Ikasleak jakin behar dute bizitzan dena erraza eta dibertigarria ez dela eta ondorioz, momentuan interes handikoak ez diren edo esfortzua eskatzen duten jarduerak egin behar direla. Ikasleak gelan aspertzeak ez du esan nahi ez dutela ikasten. Izan ere,

irakurtzea ez da erraza, lana da eta batzuetan mingarria. Ez ulertzeak bihotzean eta adimenean min egiten baitu (Moreno, 2000).

Irakurketaren zailtasuna ez da bat eta bera, testuarekin nola proposatutako ariketekin zerikusia duten askotariko ezaugarrien arabera baita. Testuari dagokionez, irakurleak zailagoak edo errazagoak aurkituko ditu, honako hauen arabera: testuaren luzera, hurbiltasun kulturala, gaiarekin ohituta egotea edo hartaz interesaturik egotea, edukiaren erraztasun edo konplexutasuna, informazioa testuan antolatzea (testuan ezartzen diren erlazioak), informazio inplizitua edo esplizitua eta formatua (laguntza grafikoak edo ikusizkoak...). Proposatutako ariketei dagokienez, zailtasuna honako hauen arabera izan daiteke: eskatutako informazioaren garrantzia, eskatutako ulermen mota eta maila (informazioa lokalizatzea, ideien arteko erlazioa, hipotesia, balioespena...), lokalizatu edo erabili behar diren testu osagaiak, kontuan hartu beharreko irizpide kopurua, eskatzen den informazioarekin tartekatzen den informazioa eta zereginaren esplizitazio maila (Iza, 2006).

Hortaz, eskolaren lana irakurri nahi ez duten ikasleen ardura ez hartu arren, nolana ere, irakurtzea ez da betebeharra, bai bere gain hartu behar duela irakurtzerik ez dutelako irakurtzen ez duten ikasleen arazoa. Zergatik? Irakurtzen ez dakitelako. Zergatik? Irakurtzen irakatsi ez zaielako; eta hau bai da eskolaren lana.

Irakurle izateko irakurtzen jakin behar da. Irakurri nahi ez duten ikasleek badakite irakurtzen?

“Leer mal un texto es la cosa más fácil del mundo; la condición indispensable es no ser analfabeto. Una vez superada esa etapa, más cívica que intelectual, las posibilidades que se ofrecen para desmantelar, tergiversar e interpretar erróneamente una frase, una página, un ensayo o un libro son, no diré infinitas, pero sí numerosísimas.” A. Rossiren hitzetan (Moreno, 2011, 9).

Beraz, irakasleak irakurtzen irakatsi behar du eta, irakurtzen irakasteko ulertzen irakatsi behar da. Irakasleak irakurketa hobea izateko lagungarri diren gako batzuk eman behar ditu: gaiaren egitura, irakurtzeko gida, galderak... Hala ere, irakurketa ez da ulertzen; ulertzen dena testua da eta irakurketa hori lortzeko beharrezkoa den baliabidea besterik ez da. Irakurmenaren ulermena ondorio bat da, ez printzipio bat.

Bestalde, ikasleek ez dakite zertarako irakurri behar duten eta hori ere, ez irakurtzeko arrazoi bat izan daiteke. Ikasteko irakurri egin behar da, ahoz eta idatziz komunikatu ahal izateko, sentimenak sentitzeko eta ahalmen kritikoa izateko.

Irakasleak irakurlearen (ikaslearen) eta liburuaren arteko oztopoak saihestea du helburu. Ikasleak literaturarekin zerbait sentitzea lortzea ahalbidetu behar du. Ez dezatela testuak landareak klasifikatzeko edo sailkatzeko modu berdinean egin. Oso zabaldua dago testu literarioak definitzea, laburtzea... azken finean analizatzea baina ez berez, zerbait transmititzen dutelako irakurtzea (Mata, 2008). Hortaz, irakasleek irakurmenaren ulermena landu behar dute baina ahaztu gabe irakurtzearen funtsa.

Irakurketaren animazioa irakurketaren ulermena laguntzeko balio izan behar du eta honen menderatzea, aldi berean, irakurzaletasuna bultzatzeko modurik hoberena da. Gainera, irakurketaren ikaskuntza bukaerarik ez duen jarduera da: guztiok irakurleen ikasle iraunkorrek gara (Mata, 2008).

2.7 Irakurmenaren ulermena

Argi dago irakurmena eskoletan landu behar dela eta soilik irakurketak bidaltzearekin nahikoa ez dela. Irakurmenaren gaitasuna bere osotasunean garatu behar dute ikasleek eta hau horrela izanda irakurtzen jarraituko dute. Beraz, ulermenezko irakurketa lantzeak bide ematen du nola edo hala arazoak konpontzen hasteko (Moreno, 2005). Izan ere, ulertu gabe ez da posible Matematikako, Hizkuntzako, Gizarte Zientzietako, Etikako edo Teknologiako terminoak, kontzeptuak eta teoriak ikastea. Hortaz, ikasgai guztietan landu behar da irakurmenaren ulermena, ez soilik hizkuntza lantzen ari denean.

Irakurleak ulertzen badu eskuen artean duena, ezagupen horiek interesgarriak gertatuko zaizkio. Aldiz, ulertzen ez badu, bere interesetik kanpo sentituko ditu eta ez ditu irakurri nahi izango; ulertzen ez dena atsegina ez baita. Ez ulertze horrek nazka, beldurra eta gaitzespena sorrarazten dezake ikasleengan edo pertsonengan. Ez dago modurik testu baten alderdi itzalpekoa, ezkutua eta misterioa ulertzeko, baldin eta testuaren mamia antzematen ez bada. Azken finean, ikasteko gogoia daukan irakurleak ez du eragozpen handiagorik testua ulertzeko ezintasuna baino.

Arazo askok irtenbiderik ez duten arren jakin beharra dago nolakoak edo zein motatakoak diren. Beraz, ulermenaren arazoari aurre egiteko hau lantzeko erabiltzen den metodologiari erreparatu beharko zaio. Ulermenaren barne sartzen dira irakasten diren eduki zein kontzeptuak, izan ere, hauek ongi ikasteko ulertu behar dira. Irakurketaren ulermena momenturo landu beharrekoa da. Irakasle askorentzat azalpenak ematea da irakasteko modurik egokiena baina zenbait ikaslerentzat metodo baliagarria izan daitekeen arren beste askok ulertu gabe aurrera jarraituko dute. Askotan ere, testuliburuko makina bat ariketa egiten dira, bakarrik jakiteko irakasleak esandakoa edo aurreko testuan irakurritakoa ea ikasleek gogoan hartu duten ala ez. Honek ez du ikaskuntza esanguratsua bermatzen izan ere, jarraian irakurritakoa errepikatzea ez du zentzurik gero ahazten badute. Garrantzitsuagoa da ikasleek testu baten aurrean daudenean testutik ideia nagusiak ateratzea eta hauek kontuan hartuz testu edo diskurtso berri bat sortzea. Baina lan hau askoz zailagoa da.

Gainera, ikasleek zer ikasi behar duten jakin behar dute eta honetarako irakasleek argi izan behar dute zer irakatsi nahi duten eta nola irakatsiko duten. Izan ere, irakasteko prozesuaren oinarrietako bat jarduerak zergatik eta zertarako egin diren ikasleek aurretik jakitea da.

Ebaluatzeak ere lanak emango dizkigu, baldin eta ez badakigu ebaluatu behar dena terminoa ote den, kontzeptua, teoria edo zein arlo kognitibo ote den. Are gutxiago dakigu zenbat termino, zenbat kontzeptu edo zenbat teoria ezagutu behar diren kalifikazio ona izateko.

Asko dira curriculumeko arloetan azaltzen diren terminoak eta kontzeptuak, eta irakasleek kurtso hasieran zehaztu beharko lituzkete zeintzuk diren ikasleek ikasi beharko lituzketenak ziklo eta arlo bakoitzean. Aurretiazko hautapen hori egiteko, kontuan hartu beharko lirateke ulermenezko irakurketari eragiten diotenak. Izan ere ezin da dena landu, eta are gutxiago urtero. Badira kontzeptu edo teoria asko maila ezberdinetan landu egiten direla eta beste batzuk inoiz ez. Beraz, aukeraketa ona egin beharko da. Gainera lantzen diren modua ere aldatu beharra dago, izan ere, maila batean kontzeptu bat ikasten bada nola da posible bi urte barru kontzeptu horretaz ezer jakitea eta berria den moduan berriro lantzea? Dena den, ikasgelan egunero gauza berriak esateko eta egiteko, gehiago pentsatu behar da, eta idazle klasikoak eta

gaur egungoak irakurri. Azken finean, gehiago irakurri behar da eta eskolako liburutegiak hori bultzatu behar du liburu horiek irakurtzeko bidea erraztuz.

Hala ere, lehenago aipatu den moduan, irakurtzea ez da lan erraza. Ez da eragiketa aritmetikoa, ez da eredu hierarkiko baten arabera trebetasun batzuen gehitzea. Kontua konplexuagoa da. Irakurketa prozesu unitarioa eta globala da, eta irakurketaren nondik norakoak, zer noiz gertatzen den zehazteak lanak ematen ditu.

Laburrean esanda, subjektu irakurleak ez du testu baten esanahia besterik gabe hartzen eta bereganatzen. Ez da hain erraza. Irakurleak testua interpretatzen du, eta bere ezagueretatik, bere egitasmo intelektualetatik eta bere sentiberatasunetik abiatuta, testuaren esanahia eraikitzen du.

Beraz, irakurtzea ez da ideiak nahiz ezagutza nahiz informazioa zuzen-zuzenean jasotzea. Askoz prozesu konplexu eta luzeagoa da.

Baina ezin da irakurlea ahaztu. Izan ere, testuari bizia eta zentzua ematen dizkiona irakurlea da. Testua irakurlerik gabe existitzen da, baina ez da ezer. Hutsaren hurrengoa da. Testua gauzatuko da baldin eta baten batek behatzen badu, sentitzen badu, ulertzen badu, interpretatzen badu, zaintzen badu.

Bestalde, testuan bat egiten dute ikasleek eta elementu kulturelek, ikasleek eta elementu kognitiboen irudikapenek, eta testuak ulertzeko hainbat trebetasun garatu behar dira. Izan ere, ulermenezko irakurketa lantzeko beharra sentitu behar dugu lehenik, lan espezifikoa eta diziplinartekoa uztartuz; eta bigarrenik, behar diren estrategiak pentsatu eta gauzatu behar ditugu, curriculumaren arlo guztietan ulermenezko irakurketa egiteko (Moreno, 2005).

3. APLIKAZIO DIDAKTIKOA

Ikastetxe batean praktikan nagoela aprobetxatuz ikastetxe honetako eskolako liburutegia aztertzei aukera izan dut. Horrela proiektua ikuspegi errealago batetik egin ahal izan da. Alde batetik, gaur liburutegiak duen egoera aztertu dut eta bestetik klasean, Lehen Hezkuntzako 2. mailan, ikasgelako liburutegia sortu dut tutorearekin batera.

3.1 Eskolako liburutegia

Ikastetxeko ikasle guztientzako lekua izan arren LHko 3. mailatik aurrera erabiltzen hasten dira batik bat. Bigarren zikloa hastean ordutegiaren saio bat liburutegian emateko aukera dute eta horrela izaten da. LHko lehenengo zikloan liburutegira joan daitezke eta berez, ordu batzuk izaten dituzte baina ikasgelako liburutegiak dituztenez, hauek erabiltzen dituzte.

Dena den, eskolako liburutegia zenbait jarduera egiteko lekua izaten da askotan. Adibidez, LHko 2. mailan Miróren obra ikusi zuten pantaila handian edo lanbideei buruz gurasoak hitz egitera etorri zirenean han elkartu ziren guztiak.

Baina esan bezala goreneko mailetan liburutegira maizago joaten dira eta ez soilik liburuen mailegua egitera, lan batzuk ere han egiten dituzte. Izan ere, oso leku aproposa da informazioa bilatzeko, iturri ezberdinak kontrastatzeko, liburuak, entziklopediak, internet... baitago.

Bestalde, Lehen Hezkuntzako 2., 4., eta 6. mailetan “motxila ibiltaria” egiten dute. Hau da, ikasgela bakoitzeko ikasle batek motxila bat eramaten du etxera astebetez. Motxila horretan adinari egokitutako liburu zein material batzuk izaten dira. Gainera koaderno txuri bat dago zerbait idatzi nahi baldin badute han egiteko. Adibidez, 2. mailan, motxila ibiltariak material hauek izan ditu: gazteleraz idatzitako liburu bat (*Cien soles espléndidos*), bi aldizkari, *Ezer baino lehen* liburua, DVD bat, orri informatibo batzuk, euskarazko ipuin batzuk eta UNO karten jolasa.

Astero gela bakoitzetik bi ikaslek motxila bana eramaten zuten etxera bertan motxilan zegoenaz disfrutatzen. Mota ezberdineko materialak zeuden familia osoak parte hartu ahal izateko eta eskolako liburutegia aldi berean, etxeetara hurbiltzeko. Gainera, koadernoan zer erabili edo irakurri zuten idatz zezaketen eta gustura edo ez izan duten. Aste bat pasatzean motxila gelara ekarri behar du eta material guztia dagoen konprobatu gero hurrengoak etxera eraman ahal izateko. Beraz, materiala txukun eta zainduta mantendu behar da eta hau ikastea oso garrantzitsua da liburutegi guztietara zabaltzen delako.

Liburuaren Egunean mailaz maila jarduera ezberdinak antolatzen dituzte. Aurten Haur Hezkuntzako irakasleak beste gela batetara joan dira ipuin bat kontatzera. Lehen

Hezkuntzako 2. mailan aldiz, gurasoak etorri dira ipuin edo istorio batzuk kontatzera. Maila altuenetako ikasleak bestalde, ipuin batzuk prestatu izan dituzte adin txikiagoko ikasleei irakurtzeko. Gainera klase batzuetan urtean zehar irakurri egin dituzten liburuen artean kuttunenak aukeratzen joan dira eta Liburuaren Egunean ikaskideekin konpartitu eta hauetaz hitz egin da.

3.2 Liburutegiko lan-taldea

Ikastetxe honetan, liburutegiaz arduratzen zen irakasle bat egon izan da urte askoz baina orain lan-taldeak sortu direlarik, liburutegiko lan-taldean irakasle zenbait daude lanean. Asteazkenero biltzen dira ordu batetik hirurak arte bilerak eginez.

Bertan jarduera ezberdinak planteatu dituzte baina lehenengo gauza liburutegiko antolakuntza berritzea izan da. Programa informatiko baten laguntzaz liburu guztien erregistroa informatizatzen ari dira. Hirugarren zikloko liburuetatik hasi dira, izan ere, hauek dira liburutegia gehien erabiltzen duten ikasleak. Beraz, liburuen datu guztiak erregistratzen hasi dira eta liburu guztiei kode berria jartzen.

3.3 Ikasgelako liburutegia

Irakurmenaren gaitasunaren ikuspegitik, haur bat testu baten aurrean dagoenean, bost prozesu kognitibo jartzen dira martxan: informazioa eskuratzea, ulermen globala, interpretazioa eta birlantzea, edukiari buruzko gogoeta eta testuaren formari buruzko gogoeta¹⁰.

Aipatutako prozesu hauek pilatzen joaten dira, hau da, zenbat eta irakurketa esperientzia gehiago izan orduan eta gaitasun handiagoa izango du haurrak. Ikuspegi honetatik ulertzen da ikasgelan liburutegia izatea oso garrantzitsua dela ikasleen irakurmenaren gaitasuna garatzeko. Izan ere liburutegiak modu erraz batean hurbiltzen ditu ikasleak irakurketa esperientzia hauek izatera.

Gaur egun, eskolako liburutegia eta ikasgelako liburutegia kontrajartzen duen eztabaida izaten da askotan. Baina bi liburutegiak bateragarriak izateaz gain guztiz osagarriak dira. Horrela kontsulta eta irakurketarako liburuak ikasgelan eskurago

¹⁰ Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa, 2008, 35-42.

dauden bitartean, eskolako liburutegian askatasun handiagoa dago zer irakurtzeko orduan, hau irakasleak zehazten ez duelako. Beraz, oso garrantzitsua da eskoletan liburutegi orokor bat egotea zeinak, lehenago aipatu den moduan, beren kideei lan eta ikasketa tekniken ezagutzak eskaintzen dituen edo informazioaren bai eta ikus-entzunezko hizkuntzen tratamendua eta interpretaziorako gakoak ematen dituen. Dena den, liburutegi honek beharrezkoa du ikasgelako liburutegi txikiagoz osatua izatea. Modu honetan, adina eta klaseko ezaugarriei egokitutako liburuak hurbilduko zaizkie ikasleei.

Esan bezala, ikasgelako liburutegiak liburuaren erabilera azkarragoa eta errazagoa egiten du gerta daitezkeen zalantzen aurrean edo egin beharreko kontsultentzat. Materialak adina, irakurketa maila eta interesari egokituak daude eta era berean informazio osatuagoa beharrezkoa bada, eskolako liburutegian dagoenarekin egin dezakete. Bertan ikasleek ikerketa lanetan jardun dezakete, informazioaren erabilera eta ezagutza berrien eraikuntza... azken finean eduki kultural berriak bereganatuko dituzte. Izan ere gelan irakasleak irakasten duena ikasiko dute baina liburutegiaren bidez, iturri ezberdinetatik eraikiko dute beren ezagutza.

Eskolako edo ikasgelako liburutegi bat sortzearen funtsezko aspektuetako bat ikasleek liburutegia soilik eskolarekin eta lanarekin lotzea saihestea da. Liburutegia ezin da "etxerako lan" bat gehiago bihurtu, irakurtzeko gune edo aukera baizik. Honetarako ezinbestekoa da liburu mota ezberdinez hornitzea: narratiba, poesia, ezagutza liburuak... Era berean, liburutegiaren kide izateko plan bat diseinatzea garrantzitsua da. Horrela ikasleak liburutegiko arlo formalak ikasiko ditu gero beren ikaskuntzarako beharrezkoak izango diren estrategiak ikasiz. Ikaslea pixkanaka bere ikaskuntzaren eta irakurketa eta kultur esperientziaren gidari izango da.

Bestalde ikasgelako liburutegiaren mantentze lanak ikasgela osoarenak dira. Ikasle guztiek ongi zaindu behar dituzte liburuak eta zenbait konpontzeko baldin badaude eta hori etxera eramaten badute hau bertan konpontzeaz arduratu beharko dira. Astero edo liburutegiko arduradunak izendatuko dira. Hauek liburuak ongi ordenatuta eta antolatuta daudela ziurtatzeaz gain liburuaren maileguaz arduratuko dira. Hau da, gainontzeko ikaskideak liburuaren bat hartu nahi dutenean alde batetik, papera emango diote noiz itzuli behar duen jakiteko eta bestetik, epe egokian itzultzen dutela

kontrolatu beharko dute.

3.4 Praktikan jarriz

Beraz, hau guztia kontutan hartuta Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasgela batean proiektu hau aurrera eramatea erabaki da.

Ikasgelako liburutegia liburuez hornitzen hasteko orduan komenigarria da liburutegiaren helburu nagusia kontuan hartzea: irakurtzearekiko gozamina erraztea. Horregatik, liburuen kalitatea eta tipologia aniztasuna bermatu beharra dago. Dena den, gelan aurkitu dena bestelakoa izan da. Liburuen gehienak ipuinak (narratiba) dira nahiz eta olerki eta komiki batzuk dauden. Bestalde kontsultarako zenbait liburu ere aurkitu dira.

Gainera, liburu gehienak eskolakoak diren arren ikasle bakoitzak etxetik zenbait liburu ekarri ditu liburutegia osatuagoa eta aberatsagoa egiteko. Horrela, ikaskideekin haiek irakurritako liburuak konpartitu ditzakete.

Erregistroari dagokionez, modu ezberdinak daude hau egiteko: zerrenda bakar batean, moten arabera etab. Geroago iritsiko diren liburuak, iristen diren heinean erregistratuko dira. Horrela, liburutegiaren proiektuari hasiera emateko azalpen saio batean hau eta liburutegiko funtzionamendu orokorraren gaineko erabakiak hartu ziren ikasle guztien artean.

Hala ere, ikasgelako liburutegia maileguarekin hartzen du benetako zentzua. Liburua eskolako eremutik kanpo eramatearen aukera izatea, harreman estuago eta zuzenago bat ahalbidetzen du irakurlearekin. Hau gelan lehenagotik egiten zen baina ikasle bakoitza arduratzen zen bere liburua hartu eta itzultzeaz. Orain liburutegiaren proiektu honekin lortu nahi dena ikasleriaren ardurak bultzatzea da. Beraz, oso garrantzitsua da mailegua arduradunak diren bi ikasleengatik kudeatua izatea beti ere irakaslearen gainbegiratze eta laguntzarekin.

3.4.1 Garapen psikoebolutiboa

Hau guztia posible izango da hurrek maila honetan duten garapen psikoebolutiboagatik. Izan ere, adin honetako hurrek pentsatzeko era berria, ezagutza gehiago eta soluzioen estrategia berriak garatzen dituzte, informazioaren

prozesamendua eta errekurtsio kognitiboen kontrola hobetzen duten bitartean.

Hasteko, klasean dauden liburu guztiak gelako apalategian ordenatzeko eskatuko zaie seriazioa erabiltzeko gai direla kontuan hartuz. Deszentralizazioa garatua dutenez, hau da, besteen ikuspuntua kontuan hartzen dutenez, lan hau guztion artean egingo dute eta liburutegia sortzeko irizpideak (erregistroa nola egin, karnetak, nola sailkatu...) denon artean aukeratuko dira. Honetarako ikasle batek egin beharrekoak paper batean idatziko ditu, izan ere, hizkuntza idatzia menperatzen dute dagoeneko eta gai dira ahoz esandakoa idazteko. Gainera, adin honetan oso garrantzitsua da arauen bidezko jarduera edo jokoak egitea eta dena ordenatua izatea beraien kideekiko interakzioa kontuan hartzen badugu. Beraz, jarduerak prestatzeko orduan hau oso kontutan hartuko da, pausoz pauso liburutegia eraikitzen joateko.

Sailkapena egiteko gai direnez, liburuak motaren (ipuina, olerkia, kontsultarako...) arabera ordenatzeko esango zaie. Horretarako izenburuak eta zertan datza irakurri beharko dute; hori egin dezakete hitzak errekonozitzeko gaitasuna eta ulertzeko gaitasuna dutelako. Horrela, liburuen erregistroa egingo dute ordenagailuan liburu bakoitzaren datu guztiak (izenburua, idazlea, ilustratzailea, editoriala...) sartuz. Bestalde, hau egin aurretik zenbat liburu dauden jakiteko hauek zenbatuko dituzte (sekuentzia numerikoa landuta dute) pegatinak jarriz eta erregistroan zerrendatuko dituzte.

Ikasgelako liburutegia eraikitzen eta formalizatzen hainbat saio eman ondoren honen erabilerarekin hasiko dira. Honetarako ikasle bakoitzak nahi duen liburua aukeratuko du etxera eramateko. Ikasleen garapen morala kontuan hartuz, 7-8 urte dutenez, oraindik onespren propio bilatzen dute, haiek nahiago duten ipuina aukeratuko dute behin eta berriro eta ez dute pentsatuko besteek ere liburu hori nahi dutenik edotea ez dute ulertuko zergatik ezin duten berriro ipuin berdina hartu. Beraz, maileguaren epea zehaztu behar da hasieratik. Bere karneta erabiliko du mailegua benetakoa izateko eta fitxa ezberdinetan apuntatuko dute bai zein den hartutako liburua bai noiz hartu eta noiz itzuli behar duen ere. Bi ikasle izango dira liburutegiaren arduradunak eta mailegua behar den moduan egiten dela kontrolatuko dute.

Bestalde, liburua bueltatzean test moduko bat osatu beharko dute gustatu ote zaien jakiteko. Hau orain arte egiten zuten, fitxa batean izenburuaren ondoan kolore batez

jarriz. Kontuan ibili behar da honekin, izan ere, adin honetan hasten dira emozioak ustezkoak izan daitezkeela ulertzen eta beraz, nahi dutena adierazten eta ez sentitzen dutena. Hau da, “liburua ez zait batere gustatu” (gorria) lagunari bezala (inguru edo pertsona antzekoa bilatzen dute) baina benetan bai gustatu zaie. Dena dela, liburu batek emozio ezberdinak sortzen dizkiela ulertzeko gai dira eta ondorioz, “irakurketa txokoa” haien iritzia edo pentsaerak adierazi ahal izango dute.

3.4.2 Jarduerak

Atal honetan tutorearekin batera diseinatu, garatu eta ebaluatutako ikasgelako liburutegiaren proiektuaren barne dauden sekuentzia didaktikoen berri emango da. Erabiliko diren saioak asteazkeneko bikoizketak (bi saio) eta ostiralekoa (saio bat) izango da. Beraz, beti talde erdiarekin lan egingo da. Bestalde, ostiral arratsaldeko lehenengo ordu erdian “irakurketa txokoa” egingo da astean zehar irakurri dituzten liburuen inguruan hitz egiteko.

Proiektu honetan aurrera eramango diren *helburu* nagusiak hauek izango dira:

- Liburuen funtzio nagusiak ezagutzea: fikzioa eta ezagutza.
- Liburu motak bereiztea: ipuinak, olerki edo poesia liburuak, kontsultarako (hauen artean gai ezberdinak) etab.
- Liburuaren aspektu formalak ezagutzea bai eta bildumak eta hauen aniztasuna.
- Ipuinetan autoreak (idazlea), izenburua eta argitaletxea identifikatzea.
- Ipuinetan marrazkigilea edo ilustratzailea identifikatzea eta honen funtzio ezberdinak desberdintzea.
- Maileguaren ohitura hastea ikasgelako liburutegiaren karnetaren bidez.

Metodologiari dagokionez, gehienetan taldean (erdian) lan egingo da, hala ere taldetxoak egingo dira zenbait jarduera edo ariketetan eta momentu puntual batzuetan bakarka lan egingo dute; hala nola, karneta egitean edo aurrerago irakurtzen dutenean.

Ebaluazioa behaketa zuzenaren bidez egingo da.

AURRETIK:

Civibox-era ateraldia liburutegia nolakoa den ikusteko. Bertan, jarrera eta portaeraren arau nagusiak ezagutzera eman zituzten: ahots baxuan hitz egitea, dagozkien zonaldeak erabiltzea, liburu eta materialen zaintza eta hauen ordena, maileguaren epeak eta ingurugiro atsegina sortzea.

Karnet ezberdinak ikusi zer nolako datuak izaten dituzten jakiteko. Horrela karnetaren itxura ezagutzeko gero beren ikasgelako liburutegiarena egin ahal izateko. Beraz, gelan karneta ezberdinak ikusi eta ukituko dira eta batzuen fotokopia egingo da gerorako baliagarriak izango direlako.

1. SAIOA: 2013/04/26, ostirala. (talde osoan)

Helburua: interesa piztu. Ikasleek erabakitze gaitasuna garatzea.

Deskribapena/Garapena: Gelan dauden liburuekin eta etxetik ekarri dituztenekin liburutegi bat osatuko dela gogoratuko zaie. Beraz, nola antolatu daitekeen galdetuko zaie eta ikasleak beraiek izango dira ideiak botako dituztenak. Horrela liburutegi bat osatzeko zer behar den eta zer egin behar den esango dute. Liburuak ordenagailuan erregistratu, karnetak egin, datuak jaso... Irakasleak ideia horiek ateratzen lagunduko die baina haiek izango dira proposamena egingo dutenak.

Materiala: ez da beharrezkoa.

Ebaluaketa: Nahiko parte hartzaile egon ziren ideia gustatu zitzaielako. Gogoekin aritu ziren ideiak botatzen haien liburutegia nolakoa nahi zuten esanez. Gainera, civiboxeko liburutegia gogoan zuten eta han dauden gauzak haien liburutegirako nahi zituzten baita. Batek idazkariaren papera egin zuen ideiei guztiak apuntatuz.

Azkenean honela geratu zen:

- 1- Liburuak sailkatu behar dira, ordenatu. Pegatinak jarri motaren arabera: gorria ipuinak, urdina etxetik ekarritakoak eta berdea kontsultarako. Aldizkariak beste

multzo batean banatuko dira. (Oso sailkapen txikia da liburu asko ez daudelako hala ere mota gehiago daudela azalduko zaie).

- 2- Ordenagailuan sartu: izenburua, idazlea, ilustratzailea, argitaletxea, zenbakia.
- 3- Karnetak. Hauek egiteko datuen fitxa: izena, abizenak, jaiotze data, herria eta kodea. Hasiera batean gurasoei egitea pentsatu zen baina gero ideiez aldatu eta ikasleak izango dira haien gurasoentzako liburuak hartu dezaketenak.
- 4- Liburuen zerrenda etxera eramateko. Horrela gurasoek jakin dezaten zein liburu dauden eta zein nahi duten irakurri.
- 5- Gurasoei oharra. Liburutegiaren gainean informatzeko. Liburuen zerrendarekin batera emango zaie.
- 6- Erregistro fitxa. Liburuak hartzean ematen den fitxatxo bat noiz itzuli behar den jakiteko. Honekin batera beste fitxa bat osatuko da liburutegian uzteko helburu berdinarekin, hau da, liburutegiko arduradunek ikasle bakoitzak liburua noiz itzuli behar duen jakiteko.
- 7- Hartze epeak: 5 egun. Baina berriro liburu bera hartu daiteke.
- 8- Liburutegiko arduradunak: 2-3.

2. SAIOA: 2013/05/03, ostirala.

Helburua: liburu mota ezberdinak ezagutu hauek ordenatuz eta sailkatuz.

Deskribapena/Garapena: Apalategian dauden liburuen erdiak hartu eta 3 multzotan banatu behar dira. Beraz, ikasleak ere hiru multzotan (3-4 talde bakoitzean) banatuko dira. Gero liburu mota bakoitzari (multzo bakoitzari) kolore bat emango zaio. Horrela ipuinek gometx gorria izango dute, kontsultarako direnak berdea eta etxetik ekarritakoak urdina. Ondoren liburu guztiak zenbatuko dira, hau errazago egiteko koloreen arabera egingo da.

Materiala: gelako liburuak. Hiru koloreetako gometxak.

Ebaluaketa: Talde erdia (A taldea) liburutegira idazketa egitera joan diren bitartean beste talde erdiak (B taldea) liburuak hartu ditu. Ikasleak liburuak hartzen joan dira eta ipuinak, kontsultarako eta etxekoak bereizten hasi dira multzo ezberdinetan jarritz. Gero, ikasleak taldeka jarri dira eta talde bakoitza liburu-multzo batean ipina da. Horrela multzoari zegokion gometxa liburu guztiei

jarriz. Beraz, etxeko liburuekin egon direnak urdina, kontsultakoak zirenak horia (berdea ez zegoen) eta ipuinei gorria. Ondoren pegatina barruan eta ordenean zenbaki bana jarri diote liburu bakoitzari. Ipuinetan 1-22, etxekoetan 1-11 (pegatina txurian ikusten ez zelako), kontsultarako 1-10. Azkenik apalategian modu ordenatu batean jarri dituzte.

Zailtasun edo arazo gehienak zein motatakoak ziren jakitea izan da. Izan ere, askotan ipuinak eta olerkiak tartekatzen ziren eta olerkien barnean edo olerkiak dituen ipuina zen erabakitzea ez da erraza izan. Beste batzuetan animalien bilduma baten gainean izandakoa. Liburu hauek animaliei buruzko ipuintxoak dira batez ere kontatzeko moduan. Baina animaliei buruzko informazioa ematen dute: hauen bizitza, elikadura, bizitokia etab. beraz, kontsultarako taldean sartzea erabaki dugu.

3. SAIOA: 2013/05/08, asteazkena.

Helburua: liburu mota ezberdinak ezagutu hauek ordenatuz eta sailkatuz.

Deskribapena/Garapena: aurreko saioaren berdina.

Materiala: gelako liburuak. Hiru koloreetako gometxak.

Ebaluaketa: Geratzen ziren liburu guztiak sailkatzen hasi dira hiru multzotan (ipuinak, etxekoak, kontsultakoak) aurreko taldeak egin zuen antzera. Horrela dagokion gometxa jarritz eta aurrekoek utzi zuten zenbakiaren hurrengo idatziz. Horrela orden egokia eramateko eta erregistro zuzena izateko; errepikatutako zenbakirik gabe. Gainera, liburu berdineko ale asko aurkitu dira eta hauek jarraian zenbatzea edo izendatzea oso garrantzitsua da gero erregistratzeko orduan arazorik ez izateko. Liburuen motak sailkatzeko unean zalantza edo zailtasun batzuk izan zituzten batez ere ipuinei liburu deitzen ziotelako eta liburuak guztiak dira; hauen barne ipuinak, kontsultakoak, komikiak etab. daudelarik.

Bestalde, zeuden liburu gehienak ipuinak zirenez, 3 ikasle hauei gometxak eta kodigoa (zenbakia) jartzen jarraitzen zuten bitartean beste batzuk erregistroarekin hasi ziren. Hau da, ordenagailuan liburuen datuak sartzen.

Azkenik beste lau ikasle liburutegiaren karnetarako datuen fitxa betetzen hasi ziren. Bi ariketa hauek hurrengo saioan beste talde erdiak (B taldeak) jarraitu zituen.

4. SAIOA: 2013/05/08, asteazkena.

Helburua: liburuen erregistroa egitea ordenagailuaren Excel programa bidez.

Deskribapena/Garapena: irakasleek sortutako excel orri batean 4 ikaslek liburuen erregistroa egiten hasi behar dira. Izenburua, zenbakia (kodea hau izango da: kolorea (adibidez, gorria bada G jarriko dute) + zenbakia (001, 002...) idazlea, marrazkilaria eta argitaletxea idatziz osatuko dute. Bitartean gainontzeko ikasleek karnetarentzako datuak jasoko dute karnetaren datuen fitxaren bidez. Horrela izena, abizenak, jaiotze data, herria eta kodea (001, 002...) idatziz.

Materiala: ipuinak (kolore gorria) eta ordenagailua; datuen fitxa.

Ebaluaketa: Alde batetik ordenagailuaren taldekoek ipuinak erregistratzen jarraitu dute. Jarduera honetarako nahiko denbora behar izango da, izan ere, oraingoz ordenagailu bakarra dago eta batek idazten duen bitartean (ez daude oso ohituta) besteek liburua harturik datuak diktatzen dizkiote eta okertzen bada, zuzendu. Beste aldetik, karnetaren datuen fitxa osatzen jarraitu dute. Zenbait datu ez zekitenean dagokion pertsonari galdetu izan diote.

5. SAIOA: 2013/05/10, ostirala.

Helburua: liburuen erregistroa egitea ordenagailuaren Excel programa bidez.

Deskribapena/Garapena: aurreko saioaren berdina.

Materiala: ipuinak (kolore gorria) eta ordenagailua; datuen fitxa.

Ebaluaketa: ikastetxerako beste lan bat egin behar izan dutenez saioa ez da aurrera eramán.

6. SAIOA: 2013/05/15, asteazkena.

Helburua: liburuen erregistroa egitea ordenagailuaren Excel programa bidez.

Deskribapena/Garapena: aurreko saioaren berdina.

Materiala: ipuinak (kolore gorria) eta ordenagailua; datuen fitxa.

Ebaluaketa: Bakarrik ordenagailu bat dagoenez, ezin dute guztiek liburuen erregistroa egin horregatik ikasleak lan-talde ezberdinetan banatu ditugu. 3 ikasle erregistratzen egon dira eta aurreko saioan utzitakoarekin jarraitu, hau da, ipuinekin. Beste batzuk falta ziren liburuak sailkatzen. Honetarako aurrekoan jarraitutako sailkapena egin dute eta pegatinak jarri dizkiete. Gainera zenbakiak gaizki ikusten zirenez, beste pegatina zuria jarri diote kolorearen azpian. Hau zeuden liburu guztiekin egin behar izan da. Hau da, berriro zenbakia jarri. Bitartean, beste 4 ikasle karnetekin hasi dira. Lehenago koloretako orrietako txantiloiak prestatu ditugu eta hauek betetzen egon dira. Karnetetan datuak idazteko aurreko egunetan datuekin sortutako orria erabili dute izan ere hor bertan datu guztiak zeuzkaten: izena, bi abizenak, herria, jaiotze data eta zenbakia.

Esan beharra dago arazo handiena liburuak berriro zenbatzearena izan dela. Izan ere, aurretik zeuden zenbakiak ez ziren ongi ikusten eta liburuak ordenatuta ez zeudenez denbora gehiago behar izan da. Bestalde, ordenagailuan lanean egon direnak ondo aritu dira baina ordenagailuan idazten ohituta ez daudenez asko kostatzen zaie eta horregatik ezinezkoa izango da ikasleak bakarrik liburu guztiak erregistratzea.

7. SAIOA: 2013/05/15, asteazkena.

Helburua: liburuen erregistroa (izenburua, egilea, ilustratzailea... identifikatuz) egitea ordenagailuaren Excel programa bidez.

Deskribapena/Garapena: aurreko saioaren berdina.

Materiala: ipuinak (kolore gorria) eta ordenagailua; datuen fitxa.

Ebaluaketa: Aurreko talde erdia aritu den bezala lan egin dute hauek ere. Lan-talde ezberdinetan banatuz lana hobeto eta azkarrago aurrera ateratzeko. Horrela karnetak egiten bukatu dute, hau da, karnetaren datuen orrian zeuden datu guztiak koloretako orrietan kopiatu dituzte. Ordenagailuarekin 3 ikasle egon dira txandaka lan egiten. Bat idazten zuen bitartean besteak diktatzen zion eta modu zuzenean idazten zuela birpasatu. Bitartean, hirugarrena gaizki ikusten ziren zenbakiak berriro pegatina berrietan idazten egon da. Beste 3 ikasle liburuei pegatinak eta zenbakiak jartzen egon dira, sailkapenarekin bukatuz (liburu guztiak sailkatzeaz amaitu dute).

Arazoa izan da liburu gehienei pegatina kentzen zitzaiela horregatik bi ikasle pegatinen gainean zela jartzen egon dira. Horrela zenbakia eta kolorea garbi ikusteko eta erregistroa ongi egiteko. Gainera, liburua hartzean ere errazago egingo da. Bestalde, beste arazo txiki bat izan da liburuak zenbatzean zenbait zenbaki “saltatu” dituztela beraz, irakasleek lagundu behar izan dugu hori konpontzen. Azkenean, liburu guztiak apaletan multzoka ordenatu ditugu.

8. SAIOA: 2013/05/17, ostirala.

Helburua: liburuen erregistroa egitea ordenagailuaren Excel programa bidez.

Deskribapena/Garapena: Liburu guztiak sailkatuta daudelarik hauen erregistroarekin jarraitu behar dute liburuen datuak ordenagailuan sartuz.

Materiala: Gelako liburuak eta ordenagailua.

Ebaluaketa: Gailetak edo pastak egiteko saio gehiago behar izan direnez, hurrengo astean beste saio batean egin beharko da liburutegiaren proiektua.

9. SAIOA: 2013/05/22, asteazkena. (bi saiotan egin da talde erdia bakoitzean)

Helburua: liburuen erregistroa (izenburua, egilea, ilustratzailea... identifikatuz) egitea ordenagailuaren Excel programa bidez.

Deskribapena/Garapena: Liburu guztiak sailkatuta daudelarik hauen erregistroarekin jarraitu behar dute liburuen datuak ordenagailuan sartuz.

Materiala: Gelako liburuak eta ordenagailua.

Ebaluaketa: saio honetan, kontsultarako liburu guztiak erregistratu dira. Hau da, pegatina horia duten liburuen datu guztiak ordenagailuan sartu dira Excel orri batean. Ikasleak txandaka ibili dira, batek idazten zuen bitartean beste batek diktatzen zizkion datuak: izenburua, idazlea... Kontsultarako liburuak zirenak nahiz eta euskaraz idatziak egon idazle zein ilustratzaileen izenak kanpotarrak ziren. Izan ere, gehienak itzuliak ziren, horregatik itzultzailearen izena ere agertzen zen eta askotan izenburu originalarena ere. Dena den, erregistro taulan soilik portadan agertzen den izenburua eta benetako egilearena jarri da, ez itzulpena egin dela. Bitartean, gainontzekoak beste jarduera bat egiten egon dira.

Bestalde, karnetetan datu guztiak idatzita daudenez, argazki bat ekartzeko eskatu zaie. Horrela argazkia itsastean karneta plastifikatu ahal izateko eta itxura errealago bat hartzeko. Hau ekartzen duten heinean egiten ari da.

Gainera, liburuen erregistroa egiteko ordenagailuan idatzi behar denez eta lan hau neketsua egiten zaienez denbora asko behar dutelako, irakasleok "lana aurreratu" dugu zenbait liburuen datuak sartuz. Hau liburutegia martxan azkarrago jartzeko egin da.

10. SAIOA: 2013/05/24, ostirala.

Helburua: liburutegia martxan jartzea.

Materiala: liburuak.

Deskribapena/Garapena: liburu guztiak kolore eta zenbakiei begiratuta apalategian ordenatzea eta txukuntzea. Hau da, motaren arabera eta honen barne, sekuentzia numerikoa jarraituz.

Ebaluaketa: Lehenengo saioan bezala, talde erdia liburutegira joan da (oraingoan beste talde erdia) idazketa egitera. Beste talde erdia, A taldea, gelako liburutegia antolatzen geratu dira. Batzuk ordenagailuan geratzen ziren liburuak erregistratzen aritu dira. Txandaka, betiko moduan, batek idazten zuen

bitartean besteak datu guztiak diktatzen zizkion. Beste batzuk, liburu batzuk konpontzen aritu dira, zelaia jarritz. Gainera, pegatinak ez kentzeko zelaia gainean jarri diote falta zitzaizen liburuei. Gainontzekoak, liburuak motaren arabera ordenatzen egon dira apal ezberdinetan banatuz. Gero, hauek sekuentzia numerikoa jarraituz era ordenatu batean ipini dituzte apalategian. Hau da, kolorea eta zenbakia kanpora begira jakiteko zein liburu den.

Zailtasun batzuk egon dira, pegatinetan zenbakiak oso ongi ikusten ez zirelako eta askotan nahasten ziren ordenatu behar zituztenean. Gainera, liburu asko zirenez multzotan jarri ostean, erortzen baziren berriro lana errepikatu behar izan dute baina azkenean lortu da liburu guztiak apalategian jartzea.

3.4.3 Irakurketa txokoa

Hasieran egitea pentsatzen ziren “irakurketa txokoa” izeneko saioak ez dira egin. Izan ere, liburutegia eraikitzen den bitartean “mailegua” gelditu behar izan da eta hortaz, egun batzuetan ikasleek ez dituzte libururik etxera eramane. Dena den, etxean dituzten liburuak irakurtzeko esan zaie. Gainera, ikastetxeko beste gauza batzuk egin behar izan dira ostiraletako arratsaldeetan (hauetan egitea pentsatuta zegoen), hala nola, jaietako kartelak, “sortzeneko” marrazkiak etab. Beraz, ez zaio denbora nahikoa eskaini.

Hala ere, ikasleek duten irakurzaletasunaz gehiago jakiteko, liburu eta liburutegien gainean duten iritzia jakiteko, noiz eta nola irakurtzen duten etab. inkesta bat pasa zaie proiektua osatzeko asmoz.

Bestalde, ipuina landu dute eta zenbait sortu dituzte. Hauek irakasleak zuzenean zuzendu beharrean, irakurketa saioan irakurtzen aritu dira. Horrela ikasle bakoitzak bere ipuina bestean aurrean ozenki irakurri du. Bitartean, gainontzekoek zer nolako akatsak edo gauza onak jarri dituen behaketa egin behar dute. Ipuina irakurtzeaz amaitzean esateko zer nolako estruktura erabili duen, ipuinena den eta egokituta dagoen, deskribapenak egin dituen (ipuin hauek egiteko premisa zen), istorioa ulertu den etab. Hau guztia irakasleak egindako galderen laguntzarekin egin izan da. Hortaz, modu batean edo bestean lotu izan dituzte idazketa eta irakurketa gehiago landu daitekeen arren.

4. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Proiektu honek zenbait alderdi era errealago batean edo modu hurbilago batetik ikustea ahalbidetu du.

Alde batetik, ikasleek liburuei nolako trataera ematen dieten ikusi egin dut. Izan ere, hasiera batean liburuak denak nahasita zituzten, ez oso txukunduta. Bat hartzen zuten, gainera begiratu eta ongi iruditzen bazitzairen hori hartzen zuten irakurtzeko. Aldiz, gustatzen ez bazitzairen hori uzten zuten begirunerik izan gabe. Desordenatuta zeudenez, zailagoa suertatzen zitzairen zein liburu irakurri duten jakitea eta zein liburu irakurtzeko aukera duten aurkitzea. Horregatik, liburu guztiak apalategian era ordenatuan jartzean errazago egiten da liburuak hartzea.

Gainera, sailkapena egitean zein liburu zeuden jakin izan zuten eta hauen gainean gehiago jakin zuten liburuen erregistroa egitean. Izan ere, izenburuak zein idazle eta ilustratzaileak idatzi behar zituzten ordenagailuan. Liburuak ipuinetan, kontsultakoak eta etxeakoetan sailkatuak zeudenez, errazagoa izan zen datuez ohartzea. Dena den, idazlea portadan agertzen ez zenean zailtasun gehiago zituzten liburu hori nork idatzi zuen jakiteko. Liburu askok barrualdean biltzen dituzte datuak beraz, liburuen gaineko bestelako ezagutza bereganatu dute jarduera honekin. Liburu bat kontatzen duen istorioa edo ematen duen ezagutza baino gehiago dela. Bere historia baduela, nork idatzi duen, itzulita dagoen, zein argitaletxek argitaratu duen, zein urteetan eta zenbat alditan... Gure eskuetara iritsi baino lehen lan handia egiten dela alegia. Hortaz, liburuak beste modu batean begiratzeko balio izan du.

Bestalde, liburutegien funtzionamendua eta antolakuntza oso ongi ikasi dute ikasgelako liburutegia eraiki dutelako. Orain, liburuak motaren arabera sailkatuta daude eta errazago egiten zaie zein liburu hartu nahi duten edo behar duten (kontsulta bat egiteko adibidez) aurkitzea. Gainera apal ezberdinetan ordenatuta daude kolore eta zenbakien arabera. Ez da lan erraza izan liburu nahiko zeudelako eta finak zirenez zenbakiak oso argi ez ziren ikusten baina azkenean lortu da liburu guztiak apalategian txukunduta izatea. Proiektu honekin batez ere liburuetara hurbildu dira eta ez irakurri "behar" zituztelako, beraz, esan daiteke lortu dela ikasleek liburuak beste modu batera hartzea.

Liburutegiko karnetak egin direnez, mailegutza benetako itxura hartu du eta ikasgelako liburutegia errealagoa bilakatu. Liburu bat hartzen dutenean noiz itzuli behar duten papertxo bat jasotzen dute eta arduradunek kontrol hori eramaten dute. Asko inplikatu dira jarduera honetan izan ere, arduradunen “erantzukizuna” izatea motibazio handia piztu du ikasleengan. Horrela, liburuak hartzera animatu dira liburutegia martxan jarri nahi zutelako eta hau nola funtzionatzen duen gustuko dutelako. Beraz, lortu da, hasieran behintzat, ikasleek liburuak hartzea nahi izan dutelako eta ez betebeharrak hori dutelako. Gero irakurriko dituzten edo ez beste gauza bat da eta hori aurrerago ikusiko da.

Argi dagoena da, pixkanaka hasi behar dela lortu nahi den azkeneko helburura iritsi arte eta ikasleen irakurzaletasuna liburutegitik bultzatzeko lehenengo urratsa liburutegia izatea da. Baina ez hor egotea soilik, ikasleek liburutegiaren parte sentitu behar dira hau erabiltzeko. Ikasgelako liburutegia beraiek antolatu dutenean ikusi da ikasleen inplikaziorik handiena.

Garrantzitsuena ez da dena lortzea edo proiektu oso osatuak egitea. Egiten dena esanguratsuki egiten bada zerbait lortuko da; lortzen den gutxieneko horrekin geratu beharra dago. Izan ere, beti lortzen da zerbait. Ezinezkoa da nahi den guztia egitea, hobe da ahal dena egiten saiatzea, eta egiten den hori ongi egitea.

Askotan hori da irakasle edo eskolen akatsa; eta irakurketarekin berdinduta gertatzen ohi da. Irakurtzeko eskatzen zaie ikasleei baina zein liburu irakurri behar duten esanez. Horrela ez dute haiek bakarrik irakurketaren gustua aurkituko. Eskolan irakasleek bidalitako liburuak gehienetan ez zitzaizkidan gustatu. Agian “derrigorrezkoak” zirelako. Hala ere, batzuk asko gustatu zitzaizkidan eta nire kabuz, hauen bilduma irakurtzen jarraitu nuen. Gaia interesatzen zitzaidalako edo istorioa nola kontatuta zegoen arreta erakartzen ninduelako... Azken finean, nahi nuelako irakurtzen jarraitu nuen. Hau da lortu behar dena, ikasleek irakurtzea. Hortaz, bakoitzak gustuko duen zerbait aurkitu behar du irakurri ahal izateko eta irakasleek ikaslea lagundu behar dute lan horretan. Ezin da kalitateaz hitz egin, izan ere, ezin zaie liburuak irakurtzen utzi gabe gure ustetan onak ez direlako. Aurrerago hitz egingo da kalitateaz. Lehentasuna, ikasleek irakurtzea da.

Txikitatik irakurle ona izan dena, ipuinak entzutea gustuko zuena, izaten jarraituko du inguratzen dituzten pertsonak beren gogoak handitzen badituzte eta ez irakurmen kompetentzia edo gaitasuna frogan jartzen badute. Hau da, irakurtzen jarraitzeko desioa indartu behar dute eta ez irakurri dutenaren gainean zerbait idaztera behartu, berdin dio laburpena edo galdera batzuk erantzutea den. Ezin zaio ulertu duen edo ez galdetu, irakurtzen utzi behar zaio edo irakurtzen ari garenean, irakurtzen jarraitu behar dugu. D. Pennacek (2005 [1992]) dioen moduan, “liburuak irakurtzeko dira ez hauetaz hitz egiteko”.

Ikasleei beren ikas prozesuan zehar irakurritakoaren gainean komentatzearen edo laburtzearen betebeharra jarri izan zaie. Honek beldurra ematen die eta ondorioz, irakurtzeari uzten diote eta liburuak bazter batean uzten dituzte. Izan ere, idaztea bestelako lan bat da eta esfortzua exijitzen du. Beraz, irakurtzearen lanari idaztearena modu desegokian batzen badiogu ez da emaitza onik lortuko. Hau da, irakurtzeko eskatzen bazaie gero laburpen bat egiteko ez dute gustura irakurriko. Edo liburu bat irakurri ondoren galdera batzuk erantzun behar baldin badute ez dute behar bezala irakurriko, gero erantzun beharreko galdera horietan pentsatuko dutelako eta ez dira istorioan sartuko, beraz, ez dute gustura irakurriko. Hau oso garbi ikusten da zenbait ikastetxeetan “derrigorrezko liburuak” bidaltzen dituztenean (eta egin den inkestan ideia errepikatzen da). Ikasle askok liburu hauek ez dituzte irakurtzen eta irakurtzen dituztenen artean oso gutxi gustura hartzen dituzte. Baina zergatik ez da aldatzen? Agian izan daiteke benetan ikasketak aurrera ateratzeko beharrezkoa dela liburu horiek ikasleek irakurtzea eta hori dela irakasleek zein gurasoek nahi dutena, ez berez ikasleek irakurtzea.

Egia da ikaskuntza prozesuan gauza asko landu behar direla baina hauek nola lantzen diren da aztertu beharrezkoa, ez hainbeste zer lantzen edo lantzen ez den. Horregatik, ikasgelako liburutegia behin sortua dagoela eta martxan jarri dela zerbait gehiago egin behar da ikasleek irakurtzeko. Lortu da ikasleek liburuetara hurbiltzea eta dagoeneko liburuak beste modu batean ikusten dituzte baina irakurketaz gozatzeko lanean jarraitu behar da eta argi dago irakurtzera behartzera ez dela bide egokia. Izan ere, ikasleei egindako galdetegian jaso diren erantzunetan nabari da hau. Ikasleek gutxi irakurtzen dute eta irakurtzen duten gehienek beharrezkoa delako egiten dute. Ideia

hau oso barneratuta dute, ikasteko irakurri behar dela. Urrun geratzen zaie liburuek sentimendu ezberdinak sorrarazten dutela eta soilik denbora atsegin bat pasatzeko irakurri daitekeela. Emozio ezberdinak jasotzeko, sentitzeko.

Hortaz, ezin da irakurketa behartu, hobe litzateke elkarbanatzea. Ikasleei irakurri behar zaie, seme-alabei irakurri behar zaie, orokorrean haur zein gazteei irakurri behar zaie. Modu honetan irakurle izango dira; entzuleak baina irakurleak. Honetarako denbora beharrezkoa da. Baina benetan irakurzaletasuna bultzatu nahi bada, benetan ikasleek irakur dezatela nahi bada eta hau lortzeko lan egiten bada, edozein momentu eta ekintza baliogarri izango da helburua bete ahal izateko. Besteak beste, irakasleak (edo gurasoek) ikasleei irakurri behar dienaren ideia errepikatu da. Izan ere, askotan, ikasleek irakurtzen ikastea lortu dutenean irakurtzeari uzten zaio. Gauza batek ez du bestea deuseztatzen; aitzitik, erabat osagarriak dira.

Ikasleak irakurtzen hasten direnean irakurtzen jarraitzen badiegu hauek gogo handiagoz ekingo diote irakurtzeari. Hasieran, lana da, zaila egiten zaie, eta ez dute behar duten guztia ulertuko. Beraz, irakurtzearen inguruan izan zezaketen ideia onak aldatuz joan daitezke. Hau da, lehenago irakurle entzuleak ziren eta asko gustatzen zitzairen, oso gustura entzuten zituzten liburuetako istorioak. Horregatik beren kabuz irakurtzeko nahia izaten hasi ziren, batzuk behintzat. Baina jarduera zaila denez, erraz ahazten dute irakurtzea atsegina dela eta irakurtzearen beharrarengatik aldatzen dute. Hortaz, irakurtzen jarraitu behar zaie.

Gainera, galdetegian ikusi den moduan, oso barneratuta dute irakurri behar dutela. Hala ere, zergatik ez dute egiten? Edo behar moduan irakurtzen?

Ikasleei pasa zaien galderen erantzunak ikusita gehienak eskolan irakurtzen hasi ziren, batzuk Haur Hezkuntzan eta beste batzuk Lehen Hezkuntzan, batez ere, 1go mailan. Gutxi batzuk etxean hasi zirela diote baina ez dute berez zein momentutan azaltzen. Gainera, askok zenbat urterekin jartzen dute, irakurtzen ikasi zuten adina alegia. Hortaz esan daiteke urte batean edo bestean ikasi zutela irakurtzen baina zergatik erantzun behar dutenean zaila egiten zaie eta gehienek ikasteko esan dute. Gutxi batzuk nahi zutelako (ikasi nahi zutelako ulertzen da) edo gustatzen zitzaielako. Badira “derrigortu nindutelako” erantzun dutenak ere. Honekin argi ikus daiteke “noiz hasi

zinen irakurtzen” galderari erantzun behar zutenean, irakurtzen noiz ikasi zuten erantzun dutela.

Batek marrazkiak gustatzen zitzaizkiolako eta beste batek bere anaia irakurtzen ikusten zuelako hasi zela dio. Beraz, gehienak irakurtzen ikasi behar zutelako ikasi zuten ez berezko interesa zutelako edo irakurtzen jakin nahi zutelako.

Noiz irakurtzen duten galdetu zaie eta gauean, ikastolan, etxean, arratsaldean, batzuetan, denbora daukadanean edo bidaltzen didatenean izan dira jaso diren emaitzak. Batek, etxerako lanak bukatzean irakurtzen duela erantzun du. Beraz, irakurtzea ez du beste etxerako lan bat bezala hartzen, berarentzat betebeharra ez dela esan daiteke. Gero, etxean, ikastolan, gelan edo ohean irakurtzen dute gehienek. Liburutegitik (eta eskolako nahik gelako liburutegitik) hartzen dituzte liburuak eta etxean dituzten batzuk ere irakurri ohi dituzte. Ikasleen gehiengoak bakarrik irakurtzen du nahiz eta batzuk ama edo aitarekin irakurtzen duten. Badira irakaslearekin irakurtzen dutela erantzun dutenak ere, izan ere, askok eskolan bakarrik irakurtzen dute. Gainera, ez diete irakurtzen (batzuei gurasoek) hortaz, irakurle “pasiboak” ezin dira izan.

Zergatik irakurtzen duten erantzuteko arrazoi (aukera) ezberdinak eman zaie. Batzuk guztiak aukeratu dituzte baina orokorrean bi posizio nagusi daude. Batetik, gustukoa edo ongi pasatzen dutelako irakurtzen dutenak eta bestetik, esaten dietelako, hau da, irakurri “behar” dutelako. Badira ikasteko bai irakurtzen hobetzeko bai beste gauza batzuk ezagutzeko, esan dutenak. Baina hauek azken finean, ez dute irakurzaletasunik. Irakurri behar dutelako egiten dute, ikasteko irakurri behar delako; ez atsegina den zerbait delako edo gogoz irakurtzen dutelako. Oso barneratuta dute irakurtzearen beharraren ideia, askotan entzun dute gauza asko ikasten direla irakurtzean eta beraz, hori da erantzuten dutena. Ikasleek haien ustetan, espero den erantzuna ematen dute. Ez dira beste gauza batzuk planteatzen.

Ikaskuntzarekin orokorrean berdin gertatzen da. Benetan ikasleek ikastea nahi da edo mailaz maila pasatzea eta gainditzea? Zer da egokiagoa, gehiago jakitea edo nota onak ateratzea? Argi dago ezagutza izatea dela erantzun zuzena baina hezkuntza sistema honek duen ebaluatzeko modua gainditu behar dute ikasleek. Azken finean, ongi irakasten bada, ikasleek ezagutzak bereganatuko dituzte alde batetik baina bestetik,

frogak gaituzte. Hau da, ikasleak prestatu behar dira frogak gaituzte baina ezagutzak modu esanguratsuan irakatsiz.

Irakurketa ez da salbuespen bat. Irakurzaletasuna bultzatu behar da eta gogoz irakur dezatela baina ulermen frogak pasa behar dituzte. Hauek nola egin irakatsi behar zaie. Ondorioz, alde batetik, irakurketaren ulermena landu behar da eta bestetik, irakurzaletasuna.

Dena dela, ikasgelara itzuliz, orokorrean oso gutxi irakurtzen dutela esan daiteke. Gainera, irakurtzen badute ez dute jarduera atsegina delako egiten, beharrezkoa delako baizik.

Esan beharra dago, galdetegia LHko 2. mailako ikasleei egiteaz gain, beste ikastetxeko (G ereduak) LHko 5. mailako ikasleei ere egin zaiela. Nahiz eta beste eskola bat izan, beste ereduak izan eta ikasleen adina ezberdina izan, galderen erantzunak nahiko berdinak dira. Honekin ikus daitekeena da, gutxi irakurtzearen arazoa orokorra dela.

Gaztelerazko ikasleen artean aldatzen den gauza bakarra irakasleak irakurtzen diela da eta hau neurri batez nabaritu da ikasleen erantzunetan. Hala ere, ez dute gehiago irakurtzen. Izan ere, ongi badakigu hori nahikoa ez dela, beharrezkoa bai baina ez nahikoa. Beraz, irakurzaletasuna bultzatzeko lan egin behar da nahiz eta lortzen diren emaitzak txikiak izan. Gutxi batzuk gogoz irakurtzen dutela lortzen bada, aurrera jarraitu behar.

Bestalde, gehienek letrak lotuz irakurtzen dute, ez hitzez hitz nahiz eta hitzak ezagutzen dituzten. Berdin gertatzen zaie idazketarekin, ondorioz neketsua egiten zaie bai irakurtzea bai idaztea ere. Hala ere, gelan, ariketen azalpenak edo testuren bat irakurri behar denean beti eskua altxatzen dute (oso parte hartzaileak dira) eta hau nabarmentzekoa da.

Ulertzen ez dudana da, benetan irakurri nahi badute, zergatik ez dute egiten? Gelan irakurtzea eskatzen dute ikasle guztiek baina gero haien kabuz irakurtzeko aukera dutenean ez dute egiten. Izan daiteke irakurri behar dutela sentitzen dutelako edo ikasgelan betebeharrak hori dutelako. Gero, ikasgelatik ateratzean, bakoitzak nahi duena egiteko aukera duenean, irakurtzeaz ahazten dira. Irakurtzea eskolara lotzen dutelako izan daiteke.

Honekin batera lotu daiteke proiektuaren hasieran planteatzen ziren galderak. Izan ere, ikasle guztiek hartzen dituzte liburuak eskolako, edo ikasgelako, liburutegitik. Baina gero ikastetxetik ateratzean, ahazten dira irakurtzeaz. Ez dute liburu bat hartu edo ez aukeran izan dezaketela planteatzen. Eginbeharreko gauza bat da, liburutegitik liburu bat hartzea etxera eramateko. Gero, batzuk betebeharrak horrekin jarraituko dute liburuak irakurtzen duten bitartean.

Beraz, ikasgelako liburutegia eraikitzean, liburuetikiko ikuspegia aldatu da eta liburu bat hartzeko derrigortasunaren ideia kendu da. Liburutegira nahi duzunean joan zaitezke eta nahi duzunean har ditzakezu nahi dituzun liburuak. Hortaz, gelakoan berdinean egingo da. Hala ere, liburutegi guztiak ordutegi bat duten bezala, ikasgelako liburutegiak funtzionamendu bat izango du. Baina hau antolaketari begira da ez liburuak hartu nahi direlako ideiarik begira.

Azkenean, ikasleek beren momentua eta lekua aurkitu behar dute irakurtzeko; eta hortik abiatu behar da ikasleek pixkanaka gogoz irakur dezaten.

4. RESULTADOS Y SU DISCUSIÓN

Este proyecto permite ver algunos aspectos de manera más real y de un modo más cercano.

Por un lado, he podido observar el trato que los alumnos y alumnas dan a los libros. Al principio los libros estaban revueltos, desordenados. Tomaban uno, lo miraban por encima y si les parecía bien lo cogían si no, lo volvía a dejar tirado. Como estaban todos desordenados, era difícil saber qué libros habían leído y cuáles no. Y por lo tanto que otros libros podían leer. Por eso, el tener todos los libros en la estantería de manera ordenada elegir qué libro leer es mucho más fácil.

Además, al hacer la clasificación pudieron saber qué libros había y al registrarlos y meter los datos en el ordenador conocieron más sobre ellos: el autor, ilustrador, la editorial... Como los libros estaban clasificados por temas, cuentos, de consulta y traídos de casa, hacer el registro fue más sencillo. Sin embargo, a veces en los libros el autor no aparece en la portada y esto complicó la tarea. Pero eso ayudó a aprender que en la contraportada de algunos libros están todos los datos y que hay que mirar

ahí para saber quién o cuándo se escribió ese libro. Es decir, que los libros son algo más que la información o la historia que cuenta en el interior, el propio libro también tiene su historia. Hay una gran labor antes de que el libro llegue a nuestras manos. Así que después de esta tarea los alumnos empezaron a mirar los libros de otra manera, no solamente como herramientas de lectura.

Por otro lado, al formar la biblioteca de aula han podido aprender el funcionamiento y la organización de una biblioteca de primera mano. Ahora, los libros están clasificados según del tipo que sean y esto hace que sea mucho más sencillo a la hora de buscar el libro que necesitan, por ejemplo, cuando quieren consultar algo van directamente al estante de los libros de consulta (con pegatina amarilla).

No ha sido tarea fácil ordenar todos los libros porque eran muchos y al ser finos, los números no se veían bien y poner las pegatinas era difícil pero al final, con paciencia se ha logrado colocar todos los libros de manera ordenada en la estantería. Con este proyecto se ha logrado lo más importante, que los niños se acerquen a los libros y no porque “tengan que leerlos”.

Al hacer los carnets de la biblioteca el préstamo ha cogido realismo y así la biblioteca de aula es más real. Cuando tienen que coger un libro reciben un papel en el que pone cuando lo tienen que devolver y a su vez, los encargados de la biblioteca apuntan en otro quién ha cogido qué libro y cuándo. Así los encargados son los responsables de la biblioteca y de que ésta funcione correctamente. Además de que los libros sean devueltos en su plazo y que todo quede debidamente registrado. Esta responsabilidad ha servido de motivación y esto se ha visto reflejado a la hora de coger los libros. Se han ido animando a coger libros porque ellos y ellas han querido y porque son libros de “su biblioteca”. Por lo tanto se ha conseguido que los alumnos “elijan sus libros”, que luego los lean o no es otra cosa que se podrá ver más adelante.

Lo que está claro es que hay que empezar poco a poco marcando los pasos para llegar hasta el último objetivo. Y para animar entre todos/as a los niños a la lectura lo primero que hay que hacer es montar la biblioteca. Para que vayan a la biblioteca tienen que sentir que son parte de ella, por eso, como han sido ellos los que han

construido la biblioteca de aula, la respuesta ha sido inmediata. En el instante de organizar la biblioteca se ha visto la mayor implicación por su parte.

Lo más importante no es hacer grandes proyectos o conseguir todo. Si lo que se hace se hace significativamente, algo se conseguirá; y es, con ese poco que se consigue con lo que nos tenemos que quedar. Siempre se logra algo. Es imposible hacer todo lo que se quiere, por eso es mejor hacer lo que se pueda y quedarse con eso que se hace siendo esto lo significativo.

Ese suele ser muchas veces el problema de los profesores; y con la lectura ocurre lo mismo. Se les dice a los alumnos que lean pero diciéndoles qué libros son los que tienen que leer. Así no van a encontrar por si solos el gusto por la lectura que es lo que se pretende. Cuando estaba en la escuela, de los libros que me mandaron leer no recuerdo casi ninguno que me gustase. Quizás sea porque eran “obligatorios”. De todas formas, algunos sí que me gustaron y fueron éstos los que luego seguí leyendo. Porque me gustaba el tipo de historia o la manera que estaban narrados... la cosa es que me seguí cogiendo en la biblioteca libros de esa colección. Esto es lo que hay que conseguir, que los niños lean porque les gusta, porque ellos han elegido que quieren leer y qué libro quieren leer. Para esto cada uno tiene que encontrar lo que le gusta y de eso se tiene que encargar la escuela y los profesores ayudarles en su búsqueda. No se puede hablar de calidad, no se les puede negar un libro porque no se considere bueno. Lo primero es que lean.

El que ha sido un buen lector desde pequeño, es decir, al niño que le gustaba que le leyesen, lo seguirá siendo si las personas que lo rodean lo animan a ello y no ponen en duda o cuestionan su competencia lectora. Es decir, hay que seguir incentivando el deseo por la lectura y no preguntarles si han entendido lo que han leído. No se les puede hacer escribir sobre algo que han leído, resumiéndolo o respondiendo unas preguntas. Hay que dejarles leer y si les estamos leyendo, seguir leyéndoles. Como dice D. Pennac (2002 [1992]), “los libros están para leerlos no para comentarlos”. Yo añadiría también para ser escuchados por un buen lector (se padre, madre o docente).

A lo largo del proceso de aprendizaje a los alumnos se les ha cometido la tarea de resumir o comentar lo leído. Esto les da miedo y en consecuencia, dejan de leer y abandonan los libros. Y es que escribir exige un esfuerzo. Por lo tanto, si a la tarea de

leer se le suma de manera incorrecta la escritura los resultados no serán positivos. Es decir, si se les pide leer para que luego hagan un resumen no van a leer por gusto. O si tienen que leer para luego responder a unas preguntas no van a leer como deberían leer porque van a estar pensando en las preguntas que más tarde deberán responder. Esto se ve muy claro en algunos centros cuando mandan “lecturas obligatorias” (y la idea se vuelve a repetir en la encuesta realizada). Muchos alumnos no se leen estos libros y de los alumnos que se los leen pocos lo hacen porque les gusta. Y, ¿por qué esto no cambia si cada vez son más las actividades que se hacen para animar a la lectura? Quizás sea porque en realidad lo que se pretende es que los alumnos sigan adelante en sus estudios y que estos libros sean necesarios para poder aprobar, no se pretende que lean por leer y que descubran el placer de leer.

Es verdad, que en el proceso educativo son muchas las cosas que se tienen que enseñar pero no es tanto el qué, sino el cómo se trabaja lo que hay que analizar. Por eso, una vez que se ha organizado la biblioteca de aula y se ha puesto en marcha, hay que seguir trabajando para que los alumnos lean. Se ha logrado que los alumnos se acerquen a los libros de manera distinta y que los vean de otro modo pero para disfrutar de la lectura hay que seguir trabajando y está claro que obligándoles a leer no se va a conseguir. Esto claramente se ha visto reflejado en el cuestionario realizado a los alumnos. Los alumnos leen poco y entre los que leen lo hacen porque deben hacerlo. El deber de leer lo tienen muy interiorizado. Lejos queda el placer por la lectura y los sentimientos o sensaciones que puedes llegar a sentir al leer, las emociones que se pueden vivir con la lectura.

Por lo tanto, no se puede obligar a leer, mejor sería compartir la lectura. Hay que leer a los alumnos, a los hijos, en general a todos los niños y jóvenes hay que leerles. De este modo serán oyentes y más adelante lectores. Para esto se necesita tiempo. Pero si se quiere animar a la lectura cualquier momento o acción servirá para que los alumnos lean. Entre otras cosas se ha repetido la idea de que los profesores o padres tienen que leerles. Y es que muchas veces una vez que el niño ha aprendido a leer por sí solo, se deja de leerles. Una cosa no quita la otra; es más, se complementan.

Cuando un alumno empieza a leer si continuamos leyéndole éste lo recibirá de buen agrado. Al principio, leer cuesta, es un trabajo duro que exige mucho esfuerzo y no

entienden todo lo que quisieran. Por eso, la buena imagen que podían tener de leer se puede quedar atrás y es por esto por lo que no hay que dejarles de leer. Es decir, algunos empiezan a leer porque tienen interés pero al ver que no es tan fácil como creían ese interés puede bajar llegando a desaparecer y lo sustituyen por el deber de leer. Por lo tanto, hay que seguir leyéndoles.

Además como se ha visto en el cuestionario, la idea del deber de leer la tienen muy integrada. Entonces, ¿por qué no leen? o al menos, como debieran.

Viendo las respuestas a las preguntas realizadas en el cuestionario casi todos empezaron a leer en la escuela, o bien en Infantil o bien en Primaria, sobre todo en primero. Unos pocos dicen que empezaron en casa pero no especifican el momento. Además muchos ponen la edad exacta. Esto quiere decir que con unos años o con otros todos aprendieron a leer pero decir porque empezaron es más difícil y casi todos contestan que para aprender. Hay algunos que porque “me obligaron”. Es decir, todos al responder cuándo empezaron a leer, han respondido cuándo aprendieron a leer.

Uno solo ha respondido que porque le gustaban los dibujos y otro porque veía a su hermano leer. Así que todos porque tenían que aprender empezaron a leer no porque tenían un interés especial o porque querían saber leer.

A la pregunta de cuándo leen, a la noche, en el colegio, en casa, a las tardes, a veces, cuando tengo tiempo o cuando me lo mandan son las respuestas que han dado. Uno ha respondido que al acabar los deberes por lo que se puede decir que no considera la lectura como otro deber más. Aún así, es la excepción porque la respuesta mayoritaria ha sido “a veces”. Leen en casa, en el colegio, en sus cuartos o en la cama. Y los libros que leen los cogen de la biblioteca, tanto escolar como de aula, y de casa. Normalmente leen solos aunque hay veces que la madre o el padre les acompaña en su lectura. Hay quien ha respondido que leen con su profesor y es que algunos solo leen en la escuela. Además, no les leen (a unos pocos sus padres) por lo que no pueden ser lectores “pasivos”.

Para la pregunta de por qué leen tenían diferentes opciones que algunos han redondeado todas. Pero en general, se pueden distinguir dos posiciones. Por un lado, los que leen porque les gusta, porque se lo pasan bien. Por otro lado, los que leen

porque les dicen (padres o profesores) que tiene que leer, por que deben leer. Muchos han respondido que para mejorar leyendo o para aprender otras cosas pero estos alumnos al fin y al cabo no tienen gusto por la lectura. Leen porque tienen que leer. Tienen muy interiorizado la idea del deber de leer, han oído muchas veces que para aprender hay que leer y es por eso porque dan esa respuesta. Dan la respuesta que creen que se espera de ellos; no se plantean otras cosas.

Ocurre lo mismo con el proceso de aprendizaje en general. ¿Realmente se quiere que los alumnos aprendan o simplemente que aprueben? Qué es más adecuado, ¿saber más cosas o sacar mejores notas? Está claro que la respuesta correcta es que aprendan pero tienen que superar el modo de evaluación del sistema escolar. Al fin y al cabo, si se enseña bien, los alumnos por un lado aprenderán, y por otro conseguirán aprobar las pruebas. Es decir, hay que preparar a los alumnos para que superen satisfactoriamente estas pruebas pero mediante un aprendizaje significativo.

La lectura no es una excepción. Hay que animar a la lectura y motivarles a ello pero tienen que superar las pruebas de comprensión lectora. Hay que enseñarles cómo tienen que hacerlas. Por lo tanto, por un lado hay que trabajar la comprensión lectora y por otro, la animación.

De todas formas, y volviendo a los alumnos encuestados, se puede decir que en general leen muy poco. Además si leen no lo hacen porque la actividad de leer es agradable, lo hacen porque hay que hacerlo.

Hay que decir que el cuestionario además de hacérselo a los alumnos de segundo, también se les ha pasado a alumnos de 5º de otro centro (modelo G). Aunque sean alumnos de otro colegio, de otro modelo y de otras edades las respuestas han sido muy parecidas por lo que se puede llegar a la conclusión de que el problema de que se lee poco es general.

Lo único que varía en los alumnos de castellano es que el profesor les lee. A pesar de esto, ellos no leen más. Es verdad que hay que leerles, pero aunque es necesario no es suficiente. Por lo tanto, hay que trabajar por la animación de la lectura aunque los resultados que se consiguen sean pequeños. Si se consigue que unos pocos lean a gusto, hay que seguir hacia delante.

Por otro lado, casi todos leen uniendo las letras, no por palabras aunque las reconozcan. Lo mímico les pasa con la escritura. Por lo que tanto la lectura como la escritura se les hace un ejercicio bastante pesado. De todas formas, cuando hay que leer en clase, sea la explicación de algún ejercicio o algún texto, todos levantan las manos para hacerlo (son muy participativos) y esto hay que destacarlo.

Lo que no entiendo es, si de verdad quieren leer, ¿por qué no lo hacen? En clase todos los alumnos piden leer pero luego cuando tienen la oportunidad de hacerlo no leen. Puede ser porque sientan que hay que leer o porque dentro del aula tengan ese deber. Pero, una vez que salen de clase, cuando cada uno tiene la oportunidad de hacer lo que quiera, se olvidan de la posibilidad de leer. Quizás porque unen la lectura con la escuela.

Junto con esto cabe recordar las preguntas realizadas al principio del proyecto. De hecho, todos los alumnos cogen libros de la biblioteca escolar o de aula. Pero luego al salir del centro, se olvidan de leer. No tienen en cuenta la opción de coger o no un libro. Es algo que tienen que hacer, coger un libro de la biblioteca para llevarlo a casa. Luego algunos seguirán con ese deber mientras lo leen.

Por lo tanto, al formar la biblioteca de aula, se ha intentado cambiar la visión de los alumnos hacia los libros y la idea de la obligatoriedad de coger un libro. A la biblioteca puedes ir cuando te apetezca y coger los libros que quieras cuando quieras. Por eso la de aula tiene que ser igual. De todas formas, en las bibliotecas hay un horario y unas normas de funcionamiento por lo que la biblioteca de aula tendrá su propio funcionamiento. Esto se hace mirando a la organización de la biblioteca y no a coger los libros porque se quiera.

Al final, los alumnos deben encontrar su momento y lugar para leer; y ahí es donde empezarán a coger el gusto por la lectura.

ONDORIOAK

Orokorrean kontraesan nabarmen bat dagoela esan daiteke. Alde batetik, irakurzaletasuna bultzatu behar da, hau da, ikasleek gustukoa dutelako irakur dezaten lortzea, atseginez irakurtzea. Baina bestetik irakurtzen irakatsi behar zaie. Izan ere ez irakurtzearen arrazoiatariko bat irakurtzen ez jakitea da. Beraz, irakurketa landu behar da eta hau ez da erraza. Lana dakarren jarduera da, ahalegina eskatzen duena. Ondorioz, nola bultzatu irakurzaletasuna? Zaila den hori nola bihurtu atsegin?

Ezin da dena batera lortzeko eskatu. Alde batetik, irakurtzen, hau da, irakurtzen dutena ulertzen irakatsi behar zaie; eta bestetik, gogoz irakur dezaten lortu behar da. Irakurle bihur daitezela alegia. Honetarako dauden bide guztiez baliatu behar ditugu eta ezin dugu ahaztu norbaiti irakurtzen entzuten diotenean ere irakurle direla, nahiz eta beraiek ez irakurri. Gero hasiko dira beraiek bakarrik egiten. Beraz, ezin da lan egiteari utzi. Orain emaitzak ez ikusteak ez du esan nahi aurrerago ikusiko ez direnik.

Hasteko, derrigorrezko liburuak bidaltzea ez da ideia ona irakurzaletasuna bultzatzeko; aldiz, gomendatutako liburuen zerrenda eman daiteke.

Eskolako liburutegian edo ikasgelakoan mota ezberdineko liburuak izan behar dira ikasle bakoitzak interes ezberdinak dituelako eta atseginenak dituenak aurkitu behar dituelako. Horregatik aurretik liburu egokien zerrenda egitea gomendagarria da.

Bestalde, irakasleak irakurri behar die ahal duen guztietan. Irakurri behar dien liburuak egoki aukeratu behar ditu baina beti aniztasuna bermatuz. Izan ere, ikasle guztiengana ailegatzea lortu behar du eta honetarako gai edo mota ezberdineko liburuak irakurri beharko ditu.

Liburu horiek eskolako liburutegian egotea ezinbestekoa da, izan ere, ikasleek horiek irakurtzen jarraitu nahi badute eskura izan behar dituzte.

Ikasgelako liburutegia sortzean ikusi da ikasleak liburuetara beste moduz hurbiltzen hasi direla. Dagoeneko, ez dituzte soilik irakurri behar dituztelako hartzen. Beraz, liburutegia gune atsegina baldin bada liburuen irakurketa atsegina izango da.

Gainera, ikasle askok ez du jakingo zein liburu diren gustatzen zaizkienak. Aukera ona da aurkitzen joateko. Irakurzaletasuna bultzatzeko edo pizteko balio duena, baina programatu ezin daitekeena. Bakoitza momentu batean irakurtzen hasiko da edo hobe esanda, gogoz irakurtzen hasiko da.

Bukatzeko, gogoratu beharra dago gauzak pixkanaka egin behar direla eta horrela emaitzarik onenak lortuko direla. Ezin da proiektu handi bat egin proiektuaren zergatiaren haria galtzen bada. Hobe da, jarduera txikiagoak egitea eta helburuak gutxinaka lortuz joatea.

Irakurzaletzea prozesu luze bat da eta honen emaitzak ez dira berehalakoak. Horregatik lanean jarraitu beharra dago. Zaila den arren eta nahi den guztia lortzen ez den arren, gauzak aldatuz joango direla pentsatu beharra dago eta eskolako liburutegia ikasleen irakurzaletasuna bultzatzeko baliabidea guztion esku dagoela ezin da ahaztu.

CONCLUSIONES

Se puede decir que en general, hay una gran contradicción. Por un lado, hay que animar a la lectura, es decir, conseguir que los alumnos lean por placer, por el gusto de leer; pero por otro lado hay que enseñarles a leer. De hecho, una de las razones por las que no leen es que no saben. Es una actividad que requiere trabajo, exige esfuerzo. Por lo tanto, ¿cómo animar a la lectura?; ¿cómo hacer eso que es difícil agradable?

No se puede pedir que se consiga todo al mismo tiempo. Por un lado, hay que enseñarles a leer, esto es, a comprender lo que leen; y por otro, que lean con ganas, porque les apetece. Que se hagan lectores. Para hacer esto posible hay que hacer uso de todos los métodos y no tenemos que olvidar que cuando oyen leer también son lectores, aunque no sean ellos mismos los que lean. Por lo tanto, no se puede dejar de trabajar. Que no se vean ahora los resultados no significa que más adelante no se logren.

Para empezar, si queremos animar a leer no es buena idea mandar lecturas obligatorias; es mejor hacer una lista de libros recomendados.

Aunque estén adecuadamente elegidos, en la biblioteca escolar o de aula tiene que haber diversidad de libros porque como cada alumno tiene sus propios intereses, éste tiene que encontrar los que más le gusten o simplemente aquellos que le llamen la atención.

Por otro lado, el profesor o la profesora tiene que leerles siempre que pueda. Tiene que escoger bien los libros que les va a leer siempre y cuando garantice la diversidad. De hecho debe lograr llegar a todos ellos y para ello tendrá que leer diferentes tipos de libros y diferentes temas.

Que esos libros estén en la biblioteca escolar es imprescindible porque así, si los alumnos quieren seguir leyéndolos o volverlos a leer los tendrán a mano.

Al crear la biblioteca de aula se ha visto que los alumnos se empiezan a acercar de otra manera. Ya no solo cogen los libros porque tienen que leerlos. Si la biblioteca es un entorno agradable, la lectura de los libros también lo será.

Además, la mayoría de los alumnos no sabrá cuáles son los libros que le gustan. Esta es una buena oportunidad para empezar a descubrirlos. Una oportunidad que sirve para animar a la lectura pero que no se puede programar porque cada uno comenzará con la afición a la lectura en un momento determinado.

Para finalizar, cabe recordar que las cosas hay que hacerlas poco a poco, porque así se lograrán los mejores resultados. No se puede hacer un gran proyecto si se pierde el sentido o el para qué de éste. Es mejor, ir logrando los objetivos poco a poco mediante pequeñas actividades.

La afición a la lectura es un proceso largo y los resultados de la animación no son inmediatos. Por eso, hay que seguir trabajando. A pesar de que no es fácil y que todo lo que se pretende no se logre, las cosas van cambiando y eso es lo que hay que pensar. No podemos olvidar que está en manos de todos el uso de la biblioteca escolar; un medio para animar a que los alumnos lean por gusto y por qué no, para aprender.

ERREFERENTZIAK

- Arellano, V. (2002). *Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa. Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa*. Blitz Eskolako Liburutegiko Bilduma. Sorta berdea, 3. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Claustro de profesores del colegio público D.ª Álvora Álvarez de Falces (2005) *La formación de usuarios y el uso de la información*. Blitz Eskolako Liburutegiko Bilduma. Sorta berdea, 5. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Coronas, M. (2000). *Eskolako liburutegia. Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gune bat*. Blitz Eskolako Liburutegiko Bilduma. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Diseinu eta Curriculum Garapenerako Unitate Teknikoa (2002), Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean. Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Blitz Eskolako Liburutegiko Bilduma. Sorta horia, 1. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- García Sobrino, J. (1994). *Apuntes de Literatura Infantil: cómo educar en la lectura*. Madrid: Alfaguara.
- Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuko Ebaluazio arloa (2008). Ebaluazio diagnostikoaren esparru teorikoa. Lehen Hezkuntza. (35-42 orr.) Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Illescas, Mª J. (2003). *Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu. Erabiltzaileak prestatzen*. Blitz Eskolako Liburutegiko Bilduma. Sorta berdea, 4. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Iza, L. (2006). *Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan*. Blitz Eskolako Liburutegiko Bilduma. Sorta horia, 9. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Lage, J. (2005). *Animar a leer desde la biblioteca*. Madrid : CCS.
- Marina, J. A; De la Válgoma Mª. (2005), *La magia de leer*. Barcelona: Plaza & Janés.
- Mata, J. (2008). *10 ideas clave. Animación a la lectura: Hacer de la lectura una práctica feliz, trascendente y deseable*. Barcelona: Graó.
- Moreno, V. (1994). *El deseo de leer. Propuestas creativas para despertar el gusto por la lectura*. Nafarroa: Pamiela.

_____ (2000). *Irakurketa liburuak eta irakurtzera bultzatzea. Hausnarketak eta proposamenak*. Blitz Eskolako Liburutegiko Bilduma. Sorta berdea, 2. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

_____ (2003). ¿Qué hacemos con la lectura?. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 7, 166. [Sarean (2013/05/15): <http://www.revistasculturales.com/>]

_____ (2005). *Zertarako irakurri? Ulertzeko*. Blitz Eskolako Liburutegiko Bilduma. Sorta horia, 4. Iruñea: Nafarroako Gobernua.

_____ (2011). *Cómo hacer lectores competentes. Guía práctica: reflexiones y propuestas*. Nafarroa: Pamiela.

Pennac, D. (2005 [1992]). *Como una novela*. Barcelona: Anagrama.

ERANSKINAK

Eranskina I

GALDETEGIA

1. Noiz hasi zinen irakurtzen?
2. Zergatik hasi zinen irakurtzen?
3. Noiz irakurtzen duzu?
4. Non irakurri ohi duzu?
5. Norekin?
6. Nondik hartzen dituzu liburuak?
7. Zergatik irakurtzen duzu? Nahi dituzunak aukeratu:
 - a. Gurasoek esaten didatelako.
 - b. Irakasleak esaten didalako.
 - c. Irakurri behar dudalako.
 - d. Gustukoa dudalako.
 - e. Ongi pasatzen dudalako.
 - f. Irakurtzen hobetzeko.
 - g. Beste gauzak ikasteko.
 - h. (zuk nahi duzuna idatzi)
8. Irakurtzen dizute? Nork?

Eranskina II

LIBURUTEGIKO KARNETARAKO DATUEN ORRIA

IZENA	ABIZENA 1	ABIZENA 2	JAIOTZE- DATA	HERRIA	KODEA

Eranskina III

GELAKO LIBURUTEGIKO TXARTELA	
ARGAZKIA	DATUAK
	Izena-abizenak:
	Jaioteguna:
	Herria:
Zbkia:	
GELAKO LIBURUTEGIKO TXARTELA	
ARGAZKIA	DATUAK
	Izena-abizenak:
	Jaioteguna:
	Herria:
Zbkia:	
GELAKO LIBURUTEGIKO TXARTELA	
ARGAZKIA	DATUAK
	Izena-abizenak:
	Jaioteguna:
	Herria:
Zbkia:	

GELAKO LIBURUTEGIKO TXARTELA	
ARGAZKIA	DATUAK
	Izena-abizenak:
	Jaioteguna:
	Herria:
Zbkia:	
GELAKO LIBURUTEGIKO TXARTELA	
ARGAZKIA	DATUAK
	Izena-abizenak:
	Jaioteguna:
	Herria:
Zbkia:	
GELAKO LIBURUTEGIKO TXARTELA	
ARGAZKIA	DATUAK
	Izena-abizenak:
	Jaioteguna:
	Herria:
Zbkia:	

Eranskina IV

Sanduzelai IP. liburutegia
Irakurlea:
Izenburua:
Kodea:
Hartze data:
Itzultze data:

Mesedez, liburuak adostutako epean itzuli, beste irakurleek ere erabili nahi dituzte.

Sanduzelai IP. liburutegia
Irakurlea:
Izenburua:
Kodea:
Hartze data:
Itzultze data:

Mesedez, liburuak adostutako epean itzuli, beste irakurleek ere erabili nahi dituzte.

Sanduzelai IP. liburutegia
Irakurlea:
Izenburua:
Kodea:
Hartze data:
Itzultze data:

Mesedez, liburuak adostutako epean itzuli, beste irakurleek ere erabili nahi dituzte.